#formulaK

Gipuzkoa




Usue Arrieta
Ainara LeGardon
Eider Rodriguez
Xabier Gantzarain
Arantxa Mendiharat

4

12

22

32

40

*Usue Arrieta*

*Ainara LeGardon*

*Eider Rodriguez*

*Xabier Gantzarain*

*Arantxa Mendiharat*

Patxi Presa Lastra - Gipuzkoako Foru Aldundiko Liburutegia, Kulturaren Sustapena eta Hedapenerako zerbitzubura

Lurraldeko kultura sektoreaz arduratuko zen bitartekaritza bulego baten ideia 2017. urtean sortu zen, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuko plan estrategiko baten esparruan. Kultura gizartea eraldatzeko tresnatzat hartzen dugulako. Plan Estrategikoak hainbat ardatz ditu, besteak beste, kultura gehiago finantzatzea eta Administrazio bideratzaile baten helburuarekin lan egitea.

Diagnostiko batetik abiarazten gara: baliabideetarako sarbidea eta sare artistikoaren, herritarren eta administrazioaren arteko harremana hainbat zailtasunekin topatzen dira, besteak beste, sistemaren burokratizazioa eta konplexutasuna, gizartearen eskaera eta premia berriei erantzuteko beharra kultura eremuan, eta proiektu berrien eta sortzen ari diren kultura identitateen ikusezintasuna.

Esparru horretan, abian jarri da K bulegoa, kultura bitartekaritzako bulegoa. Bulegoaren ardatza Departamentuko laguntza lerroak berrantolatzea da, kulturaren balio kate osoan eraldatzen ari den errealitateari hobeto erantzuteko, bereziki, gizartearen eskaera eta errealitate berrietan. K bulegoak entzuteko foroak artikulatzen ditu herritarrekin, kultur eragileekin eta teknikariekin sareak sortuz eta indartuz.

K bulegoaren zeregina indartzen eta hazten joan da hiru urte hauetan. Orain gure helburua kultura sarea kontserbatzea eta zaintzea da, arreta berezia jarriz krisi honen ondorioak gehien pairatzen dituzten sortzaile kaltetuenengan. Helburu komertzialik gabeko proiektu txikiak dira, kultura industriatik eta merkataritza begiradatik urrun daudenak, baina gizarte inguruan balioa eta garrantzia dutenak.

Gure hirian, Donostian, ospatutako VI. Cultura y Ciudadanía Topaketa aprobetxatu nahi izan dugu «Diseinu instituzional berriak» eztabaida lerroan kokatzeko. Bertan, erakundeen berrikuntzaz, kultur politikak aldatzeko aukeraz eta erakunde zaintzaileen eta mesfidantza, kezka eta liskarra sortzen dituzten erakundeen arteko desberdintasunez hitz egin da.

Bigarren pertzepzio hori aldatu nahi dugu eta baieztatu Aldundia zainketaz eta arretaz arduratzen dela. Jakin badakigu erronka konplexu baten aurrean gaudela. Baina horretarako pentsatua dago K bulegoa, erakundearen eta kultura sarearen arteko zubi izateko.

Badakigu iraupeneko lasterketa bat izango dela. Jakitun gara erakundeok asko landu behar dugula sinesgarritasuna eraldaketaz, arretaz eta zaintzaz hitz egiten dugunean. Baina horretan ari gara, proposamen minoritarioenak babesten eta laguntzen dituen erakunde bat izan dadin –proposamen horiek premiazko aldaketen enbrioiak baitira–, baina, era berean, Gipuzkoako kultur ekimen guztiak bultzatzen jarraitzen duena.

#formulaK Gipuzkoa bezalako proiektuen eskutik bide hori egitea espero dugu, VI. Topaketa horretarako bereziki sortutako lantaldea, kongresuan sortu diren ideiak eta gogoeten ikuspuntuak emango dituena bere ikuspuntutik eta zeregin zehatzetik ikusita. Ekarpen horiek hainbat formatutan laburbildu dira, eta orain Gipuzkoako kultur sektoreari aurkeztuko zaizkio argitalpen honetan. Etorkizuneko ekintzen, eguneroko lanerako hobekuntzen eta gai garrantzitsuetarako hurbilketa berritzaileen gida bat eskaintzea da helburua. Aldundiaren Kultura Departamentuko sareetan eta web orrialdean izango da jendearen eskura.

La idea de una oficina de mediación para atender al sector cultural del territorio surge en el año 2017, en el marco de un plan estratégico del Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa, que quiere apostar por entender la cultura como herramienta de transformación social. En ese contexto se diseñan una serie de ejes estratégicos, entre ellos la necesidad de la financiación de la cultura y también la necesidad de trabajar en el objetivo de una «Administración facilitadora».

Se partía de un diagnóstico que habla de una situación en la que el acceso a los recursos y la relación del tejido artístico y la ciudadanía con la administración se encuentran con una serie de dificultades: la excesiva burocratización y complejidad del sistema, la necesidad de atender las nuevas demandas y necesidades sociales en el ámbito de la cultura, o la invisibilidad de nuevos proyectos y nuevas identidades culturales.

En este marco se pone en marcha K bulegoa, oficina de mediación cultural, que inicia su recorrido centrándose en reorganizar las líneas de ayuda del Departamento para intentar responder mejor a una realidad cambiante en toda la cadena de valor de la cultura y con especial incidencia en tener en cuenta las nuevas demandas y realidades sociales; articulando foros de escucha con la ciudadanía, con agentes, con técnicos e intentando crear y fortalecer redes.

El papel de K bulegoa ha ido reforzándose y creciendo a lo largo de estos años. Ahora estamos poniendo el foco en la conversación y el cuidado con nuestro tejido cultural en un intento de prestar especial atención al tejido más desfavorecido y que está sufriendo más las consecuencias de esta crisis, como los pequeños proyectos sin fines exclusivamente comerciales, alejados de las industrias culturales y de visiones más mercantilistas, pero proyectos con valor y trascendencia en el entorno social.

Hemos querido aprovechar la celebración del VI Encuentro de Cultura y Ciudadanía en nuetra ciudad Donostia, situándonos en una de sus líneas de trabajo, «Los nuevos diseños institucionales», donde se ha hablado de la innovación institucional, de la posibilidad de transformación de las políticas culturales… y en concreto un planteamiento que contraponía las Instituciones cuidadoras frente a las Instituciones que generan desconfianza, inquietud y hostilidad.

Nos interesa mucho intentar cambiar la percepción de las instituciones como organizaciones que generan cierta desconfianza y hostilidad; cambiarlas por una percepción de Institución que se preocupa de los cuidados y la atención. Sabemos que afrontamos un reto muy complicado intentando que una institución como una Diputación sea identificada con los cuidados. Pero para eso está pensada esta oficina, con ese objetivo de ser un puente entre la institución y el tejido cultural.

Sabemos que esta es una carrera de fondo. Somos conscientes de que las instituciones necesitamos trabajarnos mucho la credibilidad cuando hablamos de transformación, de atención, y de cuidados. Pero tenemos el objetivo claro de trabajar para conseguir ser también una institución que pueda apoyar y acompañar propuestas más minoritarias, que pueden ser embriones de transformaciones necesarias. Sin perder de vista la idea de ser una institución de retaguardia para ayudar a los grupos que van en vanguardia.

Y en este ámbito, en este contexto, intentamos hacer camino. Y por eso también confiamos en ir haciendo ese camino de la mano de proyectos como #formulaK Gipuzkoa, un proyecto que ha consistido en crear un grupo de trabajo para este VI Encuentro, un equipo en el que quienes participen aportarán, desde su óptica y haceres concretos, sus visiones de las ideas y reflexiones surgidas en el congreso. Esas aportaciones, sintetizadas en varios formatos, son presentadas ahora al sector cultural guipuzcoano en esta publicación, pretenden ser una posible guía de acciones futuras, mejoras para el trabajo diario, aproximaciones novedosas a cuestiones candentes actuales. También estarán a disposición del público en general en la web y las redes del Departamento de Cultura.

Patxi Presa Lastra - Jefe de Servicio de Biblioteca y Promoción y Difusión Cultural en la Diputación Foral de Gipuzkoa

s

u

U

e

e

A

t

r

e

r

!

(Arrasate, 1979)

**Artista naiz. Nire lanak arte eta zine garaikidearen esparruetan landu eta aurkeztu ditut nazioarteko mailan. 2013an Tractora artisten kooperatiba sortu nuen Ainara Elgoibar, Marc Vives eta Vicente Vázquezekin batera. 2018an -zko argitaletxea plazaratu nuen Nader Koochaki eta Vicente Vázquezekin. 2019an arte eta denboraren hausnarketarako Kinu lantaldea martxan jarri nuen Ainara Elgoibarrekin batera.**

Soy artista. En 2013 fundé la cooperativa de artistas Tractora con Ainara Elgoibar, Marc Vives y Vicente Vázquez. En 2018 presenté la editorial -zko con Nader Koochaki y Vicente Vázquez. En el 2019 para la reflexión sobre el arte y el tiempo puse en marcha el grupo de trabajo Kinu junto con Ainara Elgoibar.

# GERORAKO UTZI

Asko kostatzen zait idaztea, gero eta gehiago, edo agian honako hau esan beharko nuke: *Azkenaldian* kosta egiten zait idaztea. Badirudi azkenaldian beti daukadala *zerbait* egiteko, premiazkoagoa, produktiboagoa, presazkoagoa. Aldapa gora egiten zait aulkian esertzea, pantailaren aurrean, eta beste behin ere, jarrera bat onartzea, ariketak aurrera egiten badu nahitaez hitz jarioa azaleratuko duena. Azkenaldian eserita denbora luze ematen dut eta gogorra egiten zait *hemen* horrela jarraitzea. Azkenean, zarata guztiaren artean tarte bat ateratzen dut eta jartzen naiz; zerbaitegatik daude nire zain. Aulki batean nago eserita, etxean, pantailaren aurrean. Joan den martxoan ordenagailua jarri nuen tokitik ia dena ikus dezaket: ohea, jateko mahaia eta, azkenean, sukaldea.

Lehen ez zen horrela. Lehen, lanpostua bideratzen nuen, lana egiten ari nintzen bitartean, leihotik kalea ikusten nuela, eta etxea -ohea, jateko mahaia, eta sukaldea han barrenean-, berriz, nire atzean geratzen zirela. Horrela, lan egiten nuen bitartean, argiaren aldaketak eta hiriaren zalaparta ikusten nituen eta, nahiz eta barruan egon, kanpoaldearekin lotura handiago nuen, kaletik pixka bat hurbilago nengoen. Martxoaren amaieran, ordenagailua lekuz aldatu nuen, konturatu nintzenean *nire etxeari* bizkarra emateak *nire etxean nire burua eskaintzea*, osatzea ere esan nahi zuela. Nire pantailaren bidez ikusten ninduenarentzat, nire irudia hondo horren gainean agertzen zen. Horrela agertzen *nintzen* haren pantailan, eta horrela behar zuen izan *nire etxeak*. Horrela nengoen ni egun horretan, eta horrela zegoen, bigarren planoan, egon beharra neukan *etxea*. Hau gertatzen zitzaidan niri egun hartan, aldiz, beste *hura gertatzen zen* etxean, ohean, bazkaltzeko mahaian edo atzeko sukaldean, nire bizkarrean. Hau kontatzen nuen nik, *nire etxeak* beste hura kontatzen zuen bitartean; horrela kokatuta geratzen nintzen. Saihestu nahi banuen, aukeratu beharrean ikusten nuen nire burua, espazio diafano batean bizi bainaiz. Paradoxikoki, kaleari bizkarra eman behar izan nion nire etxea babesteko. Etxe aldera orientatu behar izan nuen, eta biraketa horrekin batera nire burua kondenatu behar izan nuen lan egiten dudan bitartean etxea etengabe begiratzera. Argi aldaketak zeharka irakurtzen ikasi behar izan nuen, etxeko gauzetan nola eragiten duten abiapuntu hartuta, eta orain nire atzean dauden leihoak zeharkatzen dituen soinuaren bidez kaleetako zalaparta irudikatu behar izan nuen. Platonen haitzuloa bezala. Oraingo garaiak markatzen dituzten gertaeren erreplika krudel gisa. Barruko eremuaren txoko bat utzi nion kale arraro, teatral horri, pantailaren bestaldean daudenentzat atze-oihal lanak egiten dituenari. Txukundu egin nintzen. Orain emakume bat ikusten dugu irudian, hondoan gortinen bidez ukatutako kale bat, kanpoko argiak –gertakarien halabeharrezko biraketaren ondorioz nire bizkarrean dagoenak– kamera ere itsutu ez dezan. Gortina horma batek eragotzi egiten du nire bizkarren dagoen atzeko kalearen distirak silueta beltz bihurtzea nire irudia pantailaren beste aldean.

Dagoeneko hasi naiz posizio hori prestatzen, nekez idazteko erabiltzen ari naizen locus hori marrazten, pantailaren aurrean, musika beti lagun dudala. Dena abesti sorta batekin hasten da. Abesti horiek modu barregarri batean ordenatzen dira idatzi behar dudanaren partitura gisa, eta, bitartean, berriz ere, *nire etxean* jarraitzen dut, *pantailaren* aurrean eserita. Kliskagailua edozer izan daiteke, nire ibilaldietan esan didaten edo entzun dudan esaldi bat, iraganeko liburu baten edo kartel baten lerro bat, itxuraz urrun dagoen zerbaitekin errima bilatu diodan jertse baten kolorea, kulturari, zientziari eta herritarren parte hartzeari buruzko hiru eguneko kongresu birtual bat, zeinaren inguruan hausnartzera gonbidatu nauten. Zerikusi arraroa duten gauza horiek guztiek diktatzen didate, eta ni erritmoa jarraitzen saiatzen naiz; agian, erritmoa bilatzen; pantailara begiratzen dudan bitartean, hark kokatzen nauela ikusten dudan bitartean.

Musikarekin bi gauza lortzen ditut bat-batean. Zarata estaliko duen soinu geruza bat sortzea, hori da lehenik. Gorputza. Munduko zaratatik, oraindik sinesten dudan eta nigan oraindik ere desioa sortzen duen idazketaren

isiltasunera igarotzea. Bi; batzuek hotsak deitu duten zurrumurru hori isilaraztea. Kateatzen ez diren eta solte dabiltzan gauzak, zure operatibari heltzen saiatzen den hitzaldi desordenatu, trakets, zirkular eta obsesibo gisa kontzientziaren inguruan dabiltzanak, izan zaitezkeen guztiaren artean pentsatu gabekoena den hura. Konputagarria ez den hondar bat, lehengai gisa agertzen den eta ulergarria, arrazoizkoa eta zentzuzkoa den guzti horren zirrikitu bat. Ondoren, artikulagarria izatea espero dut, haren artikulazioak bilatzea. Landu egin behar dut. Horrela hasten da nire etxeko letania testu hau eratzeko. Zalantzazko ariketa bat.

Hemen nago, eserita, Brian Enoren *Música para aeropuertos* (1978) entzuten. Hidrogenesse entzuten ari naiz. Talde horren abestiak erabiliz, erantzun arina aurkitu niezaioke kongresuari buruzko ia edozein galderari. «Nora garamatzazue?» -ordenagailuek galdetzen dute- «Azkenean ezerezerantz eramango zaituztegu / lerro paraleloak elkartzen diren tokira / gauzak ez faltsuak ez egiazkoak ez diren lekura / elkarrekin eskutik ezerezerantz» -erantzuten dugu-. Hortaz ari da *Un digito binario dudoso. Recital para Alan Turing (2012) diskoko kanta elkarrizketatu bat*. Bertan, egun hauetan zoritxarrez antzeman daitekeen zerbait kontatzen digute. Ehungailuek, ehunak egiteko makinek, ordenagailuen sorrera inspiratu zutela abesten dute. Gortina hormak, lehen aipatzen nizuen nire atze-oihalak bezala, martxoaren amaieraz geroztik eragozten du gainerakoentzat ni silueta hutsa izatea. Medialab-Pradoko Marcos Garcíak hitz egiten zigun mintzen antzekoak izan zitezkeen agian, zeintzuen bidez gonbidatzen gintuen erakundeen eta nirea bezalako proiektu autokudeatuen arteko harremana irudikatzera. Irudi bihurtzeak berekin dakar beti lautzea, zapaltzea eta baita berdintzea ere. Pantaila batetik datorren irudiak ekintzak bideratzen baditu, mundua zapaldu egingo da lurra laua izan arte edo, terraplanistez bete arte, hausnartzen dut. *Historia del mundo contada por las computadoras,* ordenagailuen eta estatistikaren artean dagoen harreman estuari buruz ere abesten digu, baita informatikaren garapenaren azelerazio gertakizunen eta heriotza-tasaren gorakada aldien arteko harremanari buruz ere. «Kontrolik gabeko mundu batek ordenagailu bat beharko du/etengabe hedatzen ari den gizarte batek ordenagailu bat beharko du» -isilean kantatzen dut-. Ez dezagun teknologiaren esku utzi guk aurre egin nahi ez diogun hori, hausnartzen dut. Ez dezagun dena konputagailuen esku utzi. Teknologiak ez ditu erantzungo gure galdera existentzialak, moralak, gureak baitira. Makinek, ez dituzte galdera horiek. Ez gaitezen, beraz, haien esku jarri, azkenaldian bezala.

Marina Garcések bere sarreran esaten zuen pandemiako garai hauetan galdera bat sortu dela. Zer da funtsezkoa? Funtsezko jarduerak, funtsezko ondasunak, funtsezko harremanak, zein dira? Galdera filosofikoa da, baina, zioen bezala, politiken bidez taxutzen da. Kulturari esker, galdera hori eta horren erantzunak landu ditzakegu, eta gatazkatsu bihurtu. Kultura da galdera horri ezusteko erantzunak emateko aukera izateko baldintza. Gorputza ematen die, hausnartzen dut. Zerk bultzatzen gaitu bizitzera? Marinak zioenez, Txilen, iraultza garaian, hauxe esaten zuten: borroka egingo dugu bizitzea merezi duen arte. Oraingoa bezalako une disruptibo batean, non gure bizimoduari sakonki eragiten zaion, kulturak balio behar digu oraina pentsatzeko, partekatzeko eta errealitate lautu bat gorpuzteko tresna gisa. Edo Morazaren hitzetan esanda, kulturak eredu moduko bat bezala funtzionatzen du, errealitatetzat hartzen dugunari buruzko adostasunak sortzen dituena. Gorputz baterako ehuna -hausnartzen dut, ohe gaineko edredoi bihurritua begiratzen dudan bitartean-. Gorputza den ehuna. Marinak ikusi zuen antzerki lan bat erabili zuen adibide gisa, eta bertan, irakasle bat isilik geratu zen bizirik egoteak zer esan nahi zuen galdetu ziotenean. Isiltasuna, mututasuna abandonu seinale dira. Gertatzen zaiguna abiapuntutzat hartuta lanketa bat egiten ez badugu, trauma gisa biziko dugu egoera hau -hausnartzen dut-.

Artearen gauza garrantzitsuenetako bat da onartzea batek ez dakiela ziur zer egiten ari den. Hausnartzen ari dela onartzea. Hori gertatzen denean bakarrik, zientzia halakoa ez denean, dakizu hain zuzen, zerbait egiten ari zarela. Arteak behar ditu zer egiten ari garen ondo ez dakiguneko espazio horiek, non oraindik komunikagarriak, adierazgarriak eta kodifikagarriak ez diren gauzak egin daitezkeen. Arteak, askotan, hizkuntza, kodea, gramatika sortzen ditu oraindik itzaletan dauden gauza, asoziazio eta loturetarako. Artistek ziurgabetasun eta

harridura horiekin borrokatu behar dute. Eremu korapilatsuan gaude beti, eta hartzen gaituzten espazioek horretarako prestatuta egon behar dute, ziurgabetasuna onartu eta besarkatu. José Luís de Vicentek gogorarazi zigun pandemia egoera hau erabil daitekeela prototipatzeko edo deskribatzeko nola biziko garen hemendik aurrera, mehatxatzen gaituzten krisi ugariren aurrean (ekologikoa, ekonomikoa). Kultura prototipatzeko espazio gisa pentsatzeko eskatzen zigun, bizitzen nola hasi nahi dugun lantzeko. Hori sozializatzeko espazio bat, -hausnartzen dut-.

Nire logelatik idazten dut hau (Remedios Zafraren, Consonniren eta Virginia Woolfen hitzetan). Aterik gabeko nire logelatik idazten dut, haiek bezala etorkizunari agur egiten, baina baita orainari ere, Atxu Amannek bezala. Agian, nire egokitzapena motelagoa da, edo, besterik gabe, beste askok bezala, baliabide gutxiago dauzkat nire logela propioa pandemia honetara egokitu ahal izateko. *Geratu zaitez etxean,* aho batez esatera animatzen gara. Baina, Atxuk esan zuen bezala Zer esaten dugu *geratu zaitez etxean* esaten dugunean? Non dago eta nolakoa da nire etxea? Non hasten eta non amaitzen da nire etxekotasuna? Non ehuntzen da nire babes sare afektiboa? Ezin diogu galdera honi denon izenean erantzun hura lautu gabe, batzuk zapaldu gabe, etxeak berdindu gabe. Kulturaren funtsezkoena galdera honi bide ematen diola da, aukera ematen duela, azkenean, beste gorputz batean formulatzeko, islatzeko, artikulatzeko. Hilabete hauetan nire buruari askotan galdetu diot arlo publikoaren atzerakuntzari buruz. Zer azpiegiturek eman digute zerbitzua konfinamendu hilabeteetan? Arlo publikoak atzera egiten badu eta bizirauteko bitartekoak beste plataforma korporatibo batzuetan aurkitzen baditugu, ez gaitezen harritu, gero, funtsezkoari buruzko galderaren aurrean, jendeak Amazon, Whatsapp, Mercadona, Youtube, Tinder, Zoom edo Facebook bezalako hitzekin erantzuten badigu, haiek eman baitiete euskarria herritarren sozializazio premiei, eta, beraz, ezinbestekoak izan baitira afektuak adierazteko, gure gertukoak zaintzen jarraitzeko, enpresek lanean jarraitzeko, kultura erakundeek programatzen jarraitzeko, eta mundua mututasun traumatiko batean ez gelditzeko. Arlo publikoak atzera egiten badu, erantzukizunez eta eredugarritasunez mozorrotutako beldurragatik, espazio eta bitarteko horiek galtzen ari gara gizarte gisa. Akats estrategiko larria da, eta porrot historikoa. Bizitza hedatzeko oinarrizko bitartekoak eta kanalak beste batzuen esku uzten baditugu, publikoa osagarri gisa definitzen dugu, eta pribatua, hau da, norberaren etxea, telekomunikazio enpresak eta sofwarea, bizitza garatzeko ardatz nagusi gisa, bitartean bizirauteko babes gisa. Dikotomia hori indartzera ere behartuta gaude. Funtsezkotzat jotzen den erakunde batek, oparotasun uneetan ez ezik, une zail eta arriskutsuetan ere halako gisa jardun behar du. Izan ere, une horietan, pertzepzioak bizkortu egiten dira eta errealitate deritzoguna ehuntzen duten eraldaketa eta mutazio handiak sortzen dira. Espazio eta kanal horien izaera publikoa berreskuratu behar dugu, eta zaila iruditzen bazaigu, horrek agerian utziko du gure kultura politikak ez direla eraginkorrak, eta, beraz, oso urrun gaudela orain oinarrizkoa edo «funtsezkoa» zer den ulertzetik, zurrumuru hori entzutetik eta planen, inbertsioen, azpiegituren eta politiken bidez antolatzetik.

Eudalden hitzetan, esperientzia ez da gertatzen zaiguna, gertatzen zaigunaren aurrean nola erantzuten dugun baizik. Gure gorabeheretatik eraikitzen dugun kontakizun bat da. Memoria behar da, baina baita aurrea hartzea ere. Ez diezaiogun jendeari errua bota beste gizaki, leku eta hiriko txokoekin mendekotasun loturak izateagatik. Ez diezaiogun jendeari errua egotzi gorputzak, afektuak eta premiak izateagatik, premia, afektu eta sentsibilitate horiek beste bitarteko batzuen bidez beteko direlako. Ez dira desagertuko, ez dira gelditukо, ez dira gerorako utziko, besterik gabe tokialdatu egingo dira. Uliako lorategitik esan zuten bezala, dena ez da politika, egiten uztea da asko. Zabaldu dezagun, beraz, egite hori, lehen urrats gisa eta gerorako utzi gabe.

# DEJARLO PARA MÁS TARDE

Me cuesta mucho escribir, cada día más, o quizás debiera decir: me cuesta escribir *últimamente*. Parece que últimamente tengo siempre *algo* que hacer, más urgente, más productivo, más acuciante. Se me hace cuesta arriba sentarme en la silla, ante la pantalla y aceptar, una vez más, una posición desde la que inevitablemente aflorará, si el ejercicio prospera, cierta concatenación de palabras. Últimamente paso mucho tiempo sentada y se me hace duro seguir *aquí*, así. Al final saco un hueco de entre todo el ruido y me pongo; no en vano me esperan. Estoy sentada en una silla, en casa, frente a la pantalla. Desde el lugar donde coloqué el ordenador el pasado marzo puedo verla casi toda: la cama, la mesa para comer y, al fondo, la cocina.

Antes no era así. Antes orientaba el puesto de tal forma que mientras trabajaba, veía la calle por la ventana y la casa –la cama, la mesa para comer y la cocina al fondo– quedaba a mis espaldas. Puesto así, veía mientras trabajaba los cambios de luz y el bullicio de la ciudad y estaba, aunque dentro, más conectada con el afuera, un poco más cerca de la calle. Cambié de sitio el ordenador a finales de marzo cuando aprecié que dar la espalda a *mi casa* significaba también *ofrecerme en ella*, componerme. Para todo el que se asomara a través de mi pantalla, mi figura se recortaba efectivamente sobre ese fondo. Así aparecía *yo* en su pantalla y así debía ser *mi casa*. Así estaba yo ese día y así estaba, en segundo plano, la *casa* donde debía permanecer. *Esto* me pasaba a mí ese día mientras *aquello* pasaba en la casa, la cama, la mesa para comer, o la cocina de al fondo, a mis espaldas. Esto contaba yo *mientras* aquello contaba *mi casa;* así quedaba encuadrada. Si quería evitarlo, me veía en la tesitura espacial de tener que elegir y es que vivo en un espacio diáfano. Paradójicamente, tuve que dar la espalda a la calle para proteger mi casa. Orientarme hacia la casa y condenarme en ese mismo giro a mirarla incesantemente mientras trabajo. Aprender a leer los cambios de luz indirectamente, a partir de cómo inciden en las cosas que la pueblan, e imaginar el bullicio de las calles mediante el sonido que atraviesa las ventanas, situadas ahora a mis espaldas. Como la caverna de Platón. Como una réplica cruel de los acontecimientos que marcan estos tiempos. Cedí un rincón del espacio interior a esa calle rara, teatral, que hace las veces de telón de fondo para los que están al otro lado de la pantalla. Me recompuse. Ahora vemos una mujer en la imagen, de fondo una calle negada mediante cortinas, para que la luz del exterior, –a mis espaldas debido al giro fatal de los acontecimientos– no ciegue a su vez la cámara. Un muro cortina impide que el brillo de la calle de fondo, a mis espaldas, torne mi figura en negra silueta al otro lado de la pantalla.

Ya he empezado a preparar esa posición, a dibujar ese locus desde el que escribo penosamente, frente a la pantalla, ayudada siempre de música. Todo empieza con una ristra de canciones que se ordenan ridículamente como una partitura de lo que he de escribir mientras sigo, una vez más, en *mi casa*, sentada ante *la pantalla*. El disparador puede ser cualquier cosa, una frase que me han dicho o he oído en mis paseos, una línea de un libro pretérito o de un letrero, el color de un jersey al que le he encontrado rima con alguna otra cosa aparentemente distante, un congreso virtual de tres días sobre cultura, ciencia y participación ciudadana en torno al que me han invitado a reflexionar. Todas estas cosas extrañamente asociadas me dictan y yo intento seguir el ritmo; hallar el ritmo, quizás; mientras miro a la pantalla, mientras aprecio que soy encuadrada a través de ella.

Con la música consigo dos cosas de golpe. Generar una capa sonora que opaque el ruido, eso va primero. El cuerpo. Transitar del ruido mundano al silencio del que se envuelve la escritura en la que aún creo, que aún genera deseo en mí. Dos; silenciar ese run run que algunos han venido a llamar voces. Cosas que no engranan y vagan sueltas, merodean la conciencia a modo de discurso desordenado, obtuso, circular, obsesivo, que intenta agarrarse a tu operativa, aquello más maquinal de entre todo lo que puedes llegar a ser. Un resto no computable, un resquicio de todo aquello inteligible, razonable, de sentido común, que emerge como materia prima. Después debo confiar en que sea articulable, hallar sus articulaciones. Debo trabajarlo. Así empieza mi letanía doméstica para tejer este texto. Un ejercicio dudoso.

Estoy aquí, sentada, oyendo *Música para aeropuertos* (1978) de Brian Eno. Estoy oyendo a Hidrogenesse. Podría hallar respuesta ágil a casi cualquier pregunta que me hagan sobre el congreso utilizando canciones de este grupo. «¿Hacia dónde nos lleváis?» –preguntan las computadoras– «Al final os llevaremos hacia la nada / donde las líneas paralelas se encuentran / donde las cosas no son falsas ni ciertas / juntos de la mano hacia la nada» –respondemos–. Así versa una de las canciones dialogadas del disco *Un dígito*

*binario dudoso. Recital para Alan Turing* (2012). En ella nos cuentan algo fatalmente reconocible estos días. Cantan cómo los telares, máquinas para tramar tejidos, inspiraron la creación de los ordenadores. Muros cortina, como mi calle rara e interior, como mi telón de fondo, aquel que os contaba, impide desde finales de marzo que me torne en mera silueta para los demás. Análogas quizás a las membranas de las que nos hablaba Marcos García de Medialab Prado, aquellas con las que nos invitaba a imaginar una relación entre instituciones y proyectos autogestionados como el mío.

Convertir en imagen implica siempre aplanar, achatar, allanar incluso. Si la imagen proveniente de una pantalla guía los actos, el mundo tenderá a aplastarse hasta que la tierra sea plana o, para el caso, esté poblada de terraplanistas, –rumio–. *Historia del mundo contada por las computadoras* nos canta también sobre la estrecha relación que existe entre ordenadores y estadística, y la relación entre los episodios de aceleración en el desarrollo de la informática y los períodos de auge en la mortalidad. «Un mundo fuera de control / necesitará un ordenador / Una sociedad en constante expansión / necesitará un ordenador» –tarareo–. No confiemos a la tecnología lo que nosotros no queremos afrontar, –rumio–. No nos confiemos a ellas por completo. La tecnología no va a resolver nuestras preguntas existenciales, morales, porque son nuestras. Ellas, las máquinas, no las tienen. No nos confinemos, pues, en ellas, como últimamente.

Marina Garcés decía en su introducción que en estos tiempos de pandemia ha aparecido una pregunta. ¿Qué es lo esencial? Las actividades esenciales, los bienes esenciales, las relaciones esenciales, ¿cuáles son? Esta es una pregunta filosófica aunque, decía, se declina en políticas. La cultura nos permite elaborar esta pregunta y sus respuestas, conflictivizándolas. La cultura es la condición de posibilidad para dar respuestas inesperadas a esta pregunta. Les da cuerpo, –rumio–. ¿Qué nos hace vivir? En Chile durante la revolución, decía Marina, decían, lucharemos hasta que valga la pena vivir. En un momento disruptivo como este, en el que nuestra forma de vida se ve profundamente afectada, la cultura ha de servirnos como herramienta para pensar el presente, poner en común, dar cuerpo a una realidad, por lo demás, aplanada. O dicho en palabras de Juán Luís Moraza, la cultura funciona como una especie de patrón que genera consensos sobre lo que entendemos por realidad. Un tejido para un cuerpo, –rumio, mientras miro el edredón retorcido sobre la cama–. Un tejido que es cuerpo. Marina utilizó como ejemplo una obra de teatro a la que asistió. En ella, un profesor se quedaba callado ante la pregunta sobre qué significa estar vivo. El silencio, el mutismo, son señal de abandono. Si no elaboramos a partir de lo que nos sucede, viviremos esto como un trauma –rumio–.

Una de las cosas importantes en el arte es aceptar que una no sabe a ciencia cierta lo que está haciendo. Aceptar que rumia. Sólo cuando eso ocurre, cuando la ciencia no es tal, sabes que estás *efectivamente* haciendo algo. El arte necesita esos espacios de no saber bien lo que se hace, donde poder hacer cosas que aún no son comunicables, expresables, codificables. El arte crea a menudo lenguaje, código, gramática para aquellas cosas, asociaciones, relaciones, que aún están en las sombras.

Los artistas lidian con esa incertidumbre y esa extrañeza. Estamos siempre en terreno farragoso y los espacios que nos albergan han de estar preparados para ello, aceptar la incertidumbre y abrazarla. José Luís de Vicente nos recordó que este estado de pandemia puede utilizarse para prototipar o dibujar cómo vamos a vivir a partir de ahora, con las numerosas crisis (ecológicas, económicas) que nos acechan. Nos instaba a pensar la cultura como espacio para prototipar, forjar cómo queremos empezar a vivir. Un espacio para socializarlo, –rumio–.

Escribo esto desde mi habitación propia (en palabras de Remedios Zafra, de Consonni, de Virginia Woolf). Tecleo desde mi habitación sin puertas, saludando como ellas al futuro, pero también al presente, como Atxu Amann. Quizás mi adaptación es más lenta o, simplemente, como otras muchas, dispongo de menos recursos para poder adaptar mi habitación propia a esta pandemia. *Quédate en casa*, nos animamos a decir al unísono. Pero cómo dijo Atxu, ¿qué decimos cuando decimos, *quédate en casa*? ¿dónde y cómo es mi casa? ¿dónde empieza y acaba mi domesticidad?, ¿dónde se teje mi red de protección afectiva? No podemos responder a esta pregunta por todas sin aplanarla, sin aplastar a algunas, sin allanar hogares. Lo esencial de la cultura es que da pie a esta pregunta, que permite que al fin se formule en otro cuerpo, reverbere, se articule.

A menudo me he preguntado durante estos meses por el retraimiento de lo público. ¿Qué infraestructuras nos han dado servicio durante los meses de confinamiento? Si lo público se retrae y encontramos los medios de supervivencia en otras plataformas corporativas, no nos extrañemos si después, ante la pregunta por lo esencial, la gente nos responde con palabras como Amazon, Whatsapp, Mercadona, Youtube, Tinder, Zoom o Facebook, pues ellos han dado soporte a las necesidades de socialización de la población y, como tal, han resultado esenciales para que los afectos se transmitan, sigamos cuidando de nuestros allegados, las empresas sigan operando, instituciones culturales sigan programando, para que el mundo no se pare en un mutismo traumático. Si lo público se retira, acuciado por un miedo disfrazado de responsabilidad y ejemplaridad, estamos abandonando como sociedad esos espacios y esos medios. Es un grave error estratégico y una derrota histórica. Si dejamos en manos de otros los medios y canales básicos para el despliegue de la vida, definimos lo público como accesorio y lo privado, la casa propia, las empresas de telecomunicación, el software, como eje central en el que desenvolver la vida, en el que refugiarse para sobrevivir *mientras*. Nos vemos obligadas, también, a reforzar esa dicotomía. Una institución que se crea esencial ha de actuar como tal no sólo en los momentos de bonanza, sino también en los momentos difíciles, arriesgados, porque en esos momentos se aceleran las percepciones y se crean las grandes transformaciones y mutaciones que tejen lo que llamamos realidad. Hemos de recuperar el carácter público de esos medios, espacios y canales y, si lo vemos difícil, esto es muestra de la ineficiencia en nuestras políticas culturales, lo lejos que estamos de entender qué es lo básico o «esencial» en el presente, de escuchar el run run y articularlo mediante planes, inversión, infraestructuras y políticas.

En palabras de Eudald Carbonell, la experiencia no es lo que nos pasa, sino cómo reaccionamos ante lo que nos pasa. Es un relato que construimos de nuestros avatares. Es necesaria memoria, pero también anticipación. Dejemos de culpar a la gente por tener vínculos de dependencia con otros humanos, lugares, rincones de la ciudad. No culpemos a la gente por tener cuerpos, afectos y necesidades, porque esas necesidades, afectos, sensibilidades, se van a dar por otros medios. No van a desaparecer, pararse, dejarse para luego, simplemente van a desplazarse. Como dijeron desde el jardín de Ulía, no todo son políticas, mucho es dejar hacer. Vehiculemos pues ese hacer, como primer paso y sin dejarlo para más tarde.

Ainara LeGardon

(Bilbao, 1976) [Nótese le G mayúscula y sin tilde, por favor].

**Musikaria eta artista naiz, 1991z geroztik jardunean. Nire lana bakarka nahiz hainbat kolektibo eta proiektu eszenikotan parte hartuz egiten dut.**

**Jabetza intelektualean espezializatu nintzen, sortzaile izateko premia hutsagatik, eta, ondorioz, neure zigilu diskografikoa sortu nuen 2003an. Autokudeaketaren aktibista naizela aitortzen dut, eta, nire ibilbide artistikoarekin batera, kultura kudeaketaren eta jabetza intelektualaren arloko ikerketan eta dibulgazioan lan egiten dut.**

**«Beste eredu bat posible da» atalean, eskubideen kudeaketan paradigma-aldaketa baten beharra eta bideragarritasuna aztertzen dut. «Revisión del marco legislativo de la Unión Europea en materia de propiedad intectual» izeneko nire artikulua Artearen Zuzenbideko Rodrigo Uria Sariaren epaimahaiak aukeratu zuen eta Civitas-Thomson Reuters Aranzadik argitaratu zuen, *Derecho del Arte. Anuario Iberoamericano 2016* liburuan. Gainera, David García Aristeguirekin batera, SGAE: el monopolio en decadencia saiakuntza kritikoaren egilekidea naiz (Consonni, 2017).**

**Hainbat kultura elkarte eta erakunderekin lankidetzan ari naiz aholkulari gisa, eta Kulturaren Euskal Kontseiluko kide naiz, Genero Estrategia eta Politiken taldearen barruan.**

Soy música y artista en activo desde 1991. Desarrollo mi trabajo tanto en solitario como formando parte de diferentes colectivos y proyectos escénicos.

Me especialicé en propiedad intelectual por pura necesidad como creadora, lo que me llevó a montar mi propio sello discográfico en 2003. Me declaro activista de la autogestión y, en paralelo a mi trayectoria artística, me dedico a la investigación y divulgación en el ámbito de la gestión cultural y la propiedad intelectual.

En «Otro modelo es posible» analizo la necesidad y viabilidad de un cambio de paradigma en la gestión de derechos. Mi artículo «Revisión del marco legislativo de la Unión Europea en materia de propiedad intelectual» fue elegido por el Jurado del Premio Rodrigo Uría de Derecho del Arte y publicado por Civitas-Thomson Reuters Aranzadi en el libro *Derecho del Arte. Anuario Iberoamericano 2016*. Además, soy coautora junto a David García Aristegui, del ensayo crítico *SGAE: el monopolio en decadencia* (Consonni, 2017).

Colaboro como consultora con diferentes asociaciones y entidades culturales y formo parte del Consejo Vasco de la Cultura, dentro del grupo de Estrategias y Políticas de Género.

Nire haurtzaroko une bat modu ezabaezinean grabatuta geratu zait. Hilabeteak neramatzan nire kontura pedalei ematen, baina haur bizikleta batean, betiko gurpil egonkortzaile horiekin. Halako batean, amak proposatu zidan bizikleta handiago batean ibiltzea, euskarririk gabe, baina berak lagunduta eta sostengatuta, aulkiari atzetik eskuarekin helduz eta indarrak orekatuz.

Udaberriko edo udako arratsalde bat zen. Eguzkiak zuzen zuzenean ematen zidan. Beroa eta adorea ematen zidan, nire amaren ahotsak bezala. Ez nuen ikusten, baina haren hitzak nire eskuin belarritik gertu entzuten nituen beti, nire bizkarrean. «Lasai, jarraitu. Ni eusten ari naiz. Ez kezkatu, egin dezakezu». Konfiantza nuen harengan, eta banekien ez zidala erortzen utziko.

Eskulekua arinki biratu nuen eta, ondorioz, nire ibilbidearen norabidea aldatu zen. Bizikleta hura gidatuz nire gorputzaren itzala non islatzen zen ere aldatu zen. Une hartan, eskuinerantz pixka bat begiratuz, lurzoru hareatsuan islatutako errealitatea ikusi ahal izan nuen: pedalei eragiten ari nintzen, bakarrik. Nire amak jada ez zidan eusten, gertutik jarraitzen zidan adorea emanez, besterik gabe.

Irudi haren bitartez, lurzoruan islatzen zen itzalaren bitartez, konturatu nintzen lorpen handi bat erdiesten ari nintzela. Eta informazio hori pedalei bete-betean ematen ari nintzela jaso nuen. Beldurraren ondorioz zalantza egin nuen, baina berehala nire buruaren jabe egin nintzen. Nire buruari galdetu nion: «Zer da hau, nola liteke?», eta zerbait berria ikasteaz gozatu nuen.

Beldurra, jakin-mina, ikasketa.

Harkaitz Millanek, Gipuzkoako Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol diputatuak, hainbat galdera egin zituen VI. Cultura y Ciudadanía Topaketara ongietorria emateko hitzaldian: Zein da kulturak une honetan izan behar duen zeregina, zein da eman nahi diogun eginkizuna, eta zein da administrazio publikoek izan behar duten zeregina? Nire haurtzaroko irudi hura burura etorri zitzaidan zalantzan jartzeko kulturak gaitasuna izan behar ote duen bere kabuz rol horretan kokatzeko (oraindik ere zein izan behar duen eztabaidatzen ari gara) edo gaitasun hori eman behar zaion edo eman behar diogun (nork eman beharko liokeen beste galdera garrantzitsu bat izan daiteke), eta noiz arte eman behar zaion (gai izan arte bere kabuz hartzeko, kanpoko egonkortzailerik gabe aurrera egiteko, sostengu gurpilik gabe orekan egoteko? Eta azken gai horietakoren bat benetan bideragarria al da? Eta, hala bada, zenbat denboran?).

Oreka ematen duenak, agindu ere egiten al du nahitaez? Jarraibideak eman edo irakatsi egiten al du?

Biltzarrak iraun duen egunetan hainbat hausnarketa egin dira, niri, artista eta autokudeaketaren aktibista naizen aldetik, eusten didaten ardatzetako batzuk zeharkatu dituztenak. Bereziki kezkatzen nau ziurtasunak desartikulatzeko, ziurgabetasuna besarkatzeko, sistema hau irudikatu eta desegiteko premia nagusi horrek, huts egiten duen eta elikatzen dugun horiek zaintzen ez dituen sistema baita.

Esleitu diguten lanaren zati zaila, dokumentu honetan islatzen dena, da erakundeari iradokizunak egitea da herritarrei, prozesuei, (kulturari?) laguntzeko, baina haien aurretik edo gainetik jarri gabe. Galdera da nola egin hori modu ez

autoritarioan; nola lagundu praktika kulturalak hedatzen haien efektu eraldatzaileak burokraziaren eta merkataritzaren logikaren pean harrapatu gabe. Izan ere, «atzealdeko erakundeak» behar ditugu, Amador Fernández-Savaterrek deskribatu zituen bezala, erabaki ausartak hartzeko gai izango direnak. Guztiz beharrezkoa da kultura esperimentazio-eremu gisa ulertzea, krisien beldur izango ez dena, baizik eta aukeratzat hartuko dituena.

Beldurra, jakin-mina. Bi alderdi horiek alderatu behar ditugu ondorioak atera nahi baditugu. Lehenengoak izaki kontserbatzaileak eta eraldatzeko joera txikia dutenak egiten gaitu; bigarrenak, beti galdera batetik sortzen dena (eta gogoeta batekin batera joan behar duena benetako eraldaketa-tresna izateko), ongizate sentsazioa ematen digu. «Kulturak ordena zalantzan jartzeko jakin-minerantz lerratu behar gaitu», gogorarazten digu David Buenok. Jakin-minik gabe ez dago imajinaziorik.

Kulturak laborategi bat izan behar du, kontrolean oinarritzen ez diren beste antolaketa modu batzuekin esperimentatzeko; eraginkortasuna ulertzeko beste modu batzuk, automatismoetatik ihes eginez, konfiantza izan dezakegun testuinguruak imajinatuz eta proposatuz, berez mehatxu ez diren egoeretan ezezagunari aurre egiten lagunduko digutenak. Eustea ia azaldu gabe.

Beldurra, jakin-mina. «Ez dago ezer abstraktuagorik, eta, hala ere, hori gabe ezin da gai zehatzetara iritsi», dio Mónica Bellok, eta gogorarazten digu baliabide ekonomikoak behar direla ez egiturei eusteko eta zutabeak formalizatzeko, baizik eta formatu eta Topaketa berriak egiteko, baliabideak arin eta zuzenean emateko; ez eduki ekoizpen bat emateko, baizik eta ideiekin lan egiten dutenentzat baliabideen fluxu zuzena sortzeko.

Baina, «nola pasa gaitezke imajinaziotik etorkizun bat denon artean eraikitzera?» galdetzen dio bere buruari Remedios Zafrak, zentzuzkoa beti.

Testu honen zirriborroa egiten dudan bitartean, Arantxa Mendiharat lankideak ohartarazten du, egokiro, logika indibidualak eta kolektiboak nahasteko arriskuaz. Ez dakit hori esaten duen arriskutsua izan daitekeelako pertsona helduaren bizikletarekin egin nuen ikasketaren historia txikia (nire amaren laguntzarekin eta ia azaldu ere egin gabe) eztabaidatzen ari garen kultura politiken sare horretara estrapolatzea, edota ohartarazpen hori hizlarietako batek esan berri duen zerbaitengatik den. Lantalde hau osatzen dugunok kongresua minutuz minutu komentatzen ari gara, bat-bateko mezularitzako zerbitzu ezagun baten barruan. Nolanahi ere, iruzkinen haria berrikusten dudanean, Eudald Carbonellen hitzak ateratzen zaizkit, orain inoiz baino beharrezkoagoa den indibidualtasun kolektiboari buruzkoak: «ez da indibidualitatea kolektibizatu behar, aitzitik, pertsona bakoitzak bere ezagutza pertsonalak eman behar ditu komunitatea eraikitzeko».Espeziearen kolapsoa saihesteko eta eraldaketa handiak sustatzeko osatu duen dekalogoa urre hutsa da, baina dekalogo horretatik, eta dokumentu honetan planteatzen ditudan proposamenei dagokienez, honako hauek nabarmentzen dira: «Teknologiaren sozializazio azkarra behar dugu, batez ere komunikazioari dagokionez [...] Gogoan izan behar dugu tresnek eta hizkuntzak gizatiar egin gaituztela. [...] Berehala gelditu behar dugu globalizazioa, hau da, planetako espezie-uniformizazioa. Orain egin behar dugu, oraindik garaiz baikaude».

Itzalean gordeta dagoen ikasketa.

# SARE PUBLIKO ETA FIDAGARRIAK SORTZEA EZAGUTZA ETA EDUKI KULTURALAK PARTEKATZEKO

## INGURUNE DIGITALA

Erabiltzaile garen aldetik, kontuz eta arretaz jokatu behar dugu gureak ez diren eta gure kontroletik kanpo dauden inguruneetan. Mediatizatu gabeko eta monopoliorik gabeko azpiegitura digitalak behar dira.

Administrazio publikoek sare bat eskura jartzea, eduki kulturalak sare sozialetan eta plataforma hegemonikoetan partekatzea saihesteko. Enpresa horiek negoziagarriak ez diren legezko termino eta baldintza batzuk onartzera behartzen dute, eduki intelektuala sortzen duten pertsonak plataforma horiei beren eskubideak modu zabalean lagatzera behartzen dituztenak; horrela, beren sormen materialarekin sare horietan eta beren enpresa filialetan gerta daitekeenaren gaineko kontrola galtzen dute.

Adibide gisa, 2020ko udaberrian, Katalunian «Caixa de Ressonància» delakoa sortu zen, «musika jarduerak, edukiak eta esperientziak trukatzeko plataforma etiko bat (abestiak, kontzertuak, eskolak, elkarrizketak, Topaketak, tailerrak, hitzaldiak, material esklusiboak…). Sareak musikarekin zerikusia duten musika eta artista mota guztiak hartzen ditu eta ongietorria ematen die. CDR-ren helburua da horien lana zabaltzea eta publikoarekin konektatzea Interneten bidez, komunitateen arteko harreman digital solidarioak erraztuko dituen tresna kolektibo bat bultzatuz, harreman horiek musikak existitzen jarraitzea ahalbidetuko baitute. CDRa streaming zerbitzu tradizionalen alternatiba gisa planteatzen da: irabazi asmorik gabe, kode libreko bide digitalak erabiltzea gomendatuz, Interneteko musikarako jardunbide digital egokiak sustatuz eta artisten eta zaleen arteko harreman zuzen eta horizontalaren aldeko apustua eginez».[1]

---

1 https://www.caixaderessonancia.org/#/home accedido el 22-11-20.

Efektu eraldatzaileak eragiteko gai diren praktika esperimentalak gertatzen diren espazioak eta lekuak ertzetan daude, itzalean.

Erakundeek sustatu behar dute espazioen, denboren eta baliabideen erabilera, bai eta ikerketa eta esperimentazio artistiko eta kulturala ahalbidetu ere instituzionalizatu gabeko testuinguruetan, non aukera emango zaien jakintzak diziplina batetik bestera mugitzeko metodologia ez-konbentzionalak barne hartzen dituzten testuinguruei. Esperientzia gordailu komunak sortzea, autohausnarketaren bidez autoeraldaketa gaitasuna sustatzen den lekuetan eta garaietan praktikak eginez.

## ARTEAREN ETA KULTURAREN LEGE AZPIEGITURA ALDATZEA. «ARTISTAREN ETA KULTURA LANGILEAREN ESTATUTUA»

Administrazioek lehenbailehen jarri behar dituzte abian 2018ko irailean Kongresuan aho batez onartu zen «Artistaren Estatutua egiteko Azpibatzordearen Txostenean» jasotako gomendioak.[2]

Kultur sektore profesionalean prekarietatea ikusarazteko lan egiten duten elkarte, proiektu eta pertsona indibidual ugari daude, kolektibo artistikoa, kultura kudeaketako profesionalak eta, oro har, publikoa kontzientziatzeko kultura kontratazioan jardunbide egokiak ezartzeko beharraz, araudia eguneratzeko premia nagusiaz gain. Premia horiek muga geografikoak gainditzen dituzte, baina behin eta berriz ohartarazi dira Gipuzkoako K bulegoa bitartekaritza bulegoan ere.

Premiaz aztertu behar da gomendio horietakoren bat ezar daitekeen dagoeneko gure lurraldean, eta, hala bada, administrazio eskudunak bizkor egin behar du, aspalditik ildo horretan lanean ari diren sektoreko erakundeen eta elkarteen ekarpenekin.

Gipuzkoan, Musikari (Euskal Herriko musikarien elkartea) musikarien interesak defendatu eta sustatzen ari da, bai eta erakundeekiko eta sektoreko gainerako eragileekiko harremanak sustatzen ere. Gaur egun, Musika Profesionalen Batasunaren (UPM) parte da, eta haren helburu nagusiak honako hauek dira: «Solaskide gisa jardutea gobernu zentralaren eta autonomia erkidego eta udal gobernuen aurrean, bai eta erakunde pribatuen aurrean ere», eta «gure lanbidearen errealitatea islatuko duen lege esparru berri bat lortzea, Artistaren Estatutua garatuz».[3 4]

Beste ikuspegi batzuk Prekariart bezalako proiektuetan biltzen dira. Ingurune akademikotik (UPV-EHU) eta ikerketa proiektu gisa, «praktika artistikoaren prekarietatea ulertzeko modua aztertzen du, bai adiera sinbolikoan, bai materialean, kudeaketa moduetan sakonduz. Hau da, nola bizi den prekarietatea praktika artistikoan, eta nola gaitzen diren baliabideak, erresistentziak eta bizimoduak prekarietatearen inguruan edo prekarietatetik abiatuta».[5]

Ainara LeGardon, 2020ko azaroa.

---

2 http://www.congreso.es/backoffice_doc/prensa/notas_prensa/61825_1536230939806.pdf accedido el 22-11-20.
3 https://musikari.com/es/ accedido el 22-11-20.
4 http://www.uniondemusicos.es/ accedido el 22-11-20.
5 https://prekariart.org/ accedido el 22-11-20.

Hay un momento de mi infancia que se me ha quedado grabado de forma indeleble. Llevaba ya meses pedaleando por mi cuenta, pero en una bicicleta infantil con las típicas ruedas estabilizadoras. Llegó el momento en que mi madre me propuso montar en una bicicleta más grande, sin apoyos, pero acompañándome y sosteniéndome, agarrando con su mano el sillín de atrás y equilibrando las fuerzas.

Era una tarde de primavera o verano. El sol incidía en mí más o menos de forma frontal. Me daba calor y ánimo, al igual que la voz de mi madre, a quien yo no veía, pero cuyas palabras escuchaba siempre cerca de mi oído derecho, a mi espalda. «Tranquila, sigue. Yo te voy sujetando. No te preocupes, tú puedes». Confiaba en ella y sabía que no me dejaría caer.

Giré levemente el manillar y cambió, por tanto, la dirección de mi trayectoria. Cambió también dónde se proyectaba la sombra de mi cuerpo conduciendo aquella bicicleta. En aquel momento, solo con mirar un poco hacia la derecha, pude ver la realidad proyectada en el suelo arenoso: estaba pedaleando sola. Mi madre ya no me sujetaba, solo me seguía de cerca, alentándome.

A través de aquella imagen, la de la sombra proyectada en el suelo, fui consciente de que estaba consiguiendo un gran logro. Y esa información me vino dada en pleno pedaleo. El miedo me hizo titubear, pero enseguida me sobrepuse. Me pregunté «¿qué está pasando, cómo puede ser posible?», y disfruté de estar aprendiendo algo nuevo.

Miedo, curiosidad, aprendizaje.

Harkaitz Millán, el diputado de Cultura, Cooperación, Juventud y Deporte de Gipuzkoa, lanzaba unas preguntas en su discurso de bienvenida al VI Encuentro Cultura y Ciudadanía: ¿Cuál es el papel que la cultura debe jugar en estos momentos, cuál es el papel que queremos otorgarle, y cuál es el papel que deben jugar las administraciones públicas? Aquella imagen de mi infancia se hizo presente para cuestionar si debe tener la cultura la capacidad de situarse por sí misma en ese papel (que aún estamos decidiendo cuál debe ser) o si se lo deben o debemos otorgar (quién debería otorgárselo sería otra gran pregunta), y hasta cuándo habrá que otorgárselo (¿hasta que sea capaz de abrazarlo por sí misma, de avanzar sin estabilizadores externos, de mantenerse en equilibrio sin ruedas de apoyo? ¿Y acaso alguna de estas últimas cuestiones es realmente viable? ¿Y si lo es, durante cuánto tiempo?).

¿Quien equilibra, también inevitablemente ordena? ¿Da instrucciones o instruye?

Durante los varios días en los que se ha desarrollado este congreso, se han vertido reflexiones que atraviesan algunos de los ejes que a mí me sostienen como artista y como activista de la autogestión. Especialmente me preocupa la imperante necesidad de desarticular certezas, abrazar la incertidumbre, imaginar y desmontar este sistema, pues es un sistema que falla y que no cuida a quienes lo alimentamos.

La parte difícil del trabajo que se nos ha asignado, y que se plasma en este documento, es articular sugerencias a la institución para que acompañe a la ciudadanía, a los procesos, (¿a la cultura?), pero sin situarse por delante o por encima. La pregunta es cómo hacerlo de forma no autoritaria; cómo acompañar para expandir las prácticas culturales sin capturar sus efectos transformadores bajo la lógica burocrático-mercantil. Y es que necesitamos «instituciones de retaguardia», como las describió Amador Fernández-Savater, que sean capaces de tomar decisiones valientes. Se torna completamente necesario entender la cultura como un campo de experimentación que no debe temer a las crisis, sino percibirlas como una oportunidad.

Miedo, curiosidad. Estos son los dos extremos que debemos comparar si queremos sacar conclusiones. El primero de ellos nos hace seres conservadores y poco tendentes a la transformación; la segunda, que siempre nace de una pregunta (y debe ir acompañada de una reflexión para ser una verdadera herramienta de transformación), nos aporta sensación de bienestar. «La cultura nos debe sesgar hacia la curiosidad para cuestionar el orden», nos recuerda David Bueno. Sin curiosidad no hay imaginación.

La cultura ha de constituir un laboratorio en el que experimentar con otras formas de organización no basadas en el control; otras maneras de entender la eficacia, escapando de los automatismos, imaginando y proponiendo contextos en los que podamos confiar, que ayuden a poder enfrentarnos a lo desconocido en situaciones que de por sí no supongan una amenaza. Sostener sin apenas dejarse ver.

Miedo, curiosidad. «No hay nada más abstracto y, sin embargo, sin eso no se puede llegar a cuestiones concretas», dice Mónica Bello, y nos recuerda que los recursos económicos se necesitan no para sostener estructuras y formalizar pilares, sino para procurar nuevos formatos y encuentros, para facilitar recursos de manera ágil y directa; no para dictar una producción de contenido, sino para generar un flujo directo de medios a quienes trabajan con las ideas.

Pero, «¿cómo pasamos de imaginar a construir en colectivo un futuro?» se pregunta Remedios Zafra, siempre certera.

Mientras esbozo este texto, mi compañera Arantxa Mendiharat advierte, de forma oportuna, del peligro de confundir lógicas individuales con colectivas. No sé si lo dice por el peligro que entraña extrapolar mi pequeña historia del aprendizaje con la bicicleta de persona adulta (con mi madre acompañando sin apenas dejarse ver) a todo este entramado de políticas culturales que estamos debatiendo, o si su anotación se debe a algo que acaba de decir una de las personas ponentes. Quienes conformamos este grupo de trabajo estamos comentando el congreso minuto a minuto dentro de un conocido servicio de mensajería instantánea. En cualquier caso, cuando reviso el hilo de comentarios, brotan en mí las palabras de Eudald Carbonell sobre la, ahora más que nunca, necesaria individualidad colectiva: «no se debe colectivizar la individualidad, sino que cada persona tiene que aportar sus conocimientos personales para construir la comunidad». Su decálogo para evitar el colapso de la especie e impulsar grandes transformaciones es puro oro, pero de él, y en referencia a las propuestas que planteo en este documento, destacan las siguientes máximas: «necesitamos una rápida socialización de la tecnología, sobre todo con respecto a la comunicación [...] Tenemos que recordar que las herramientas y el lenguaje nos han hecho humanos. [...] Tenemos que parar inmediatamente la globalización, es decir, la uniformización de especie en el planeta. Lo tenemos que hacer ahora que todavía estamos a tiempo».

El aprendizaje oculto en la sombra.

# CREACIÓN DE REDES PÚBLICAS Y CONFIABLES PARA LA COMPARTICIÓN DE CONOCIMIENTO Y CONTENIDOS CULTURALES

## ENTORNO DIGITAL

Como personas usuarias hemos de prestar cuidado y atención en entornos que no poseemos y que escapan a nuestro control. Se necesitan infraestructuras digitales no mediatizadas y no monopolísticas.

Que las administraciones públicas pongan a disposición una red para poder evitar la compartición de contenidos culturales en las redes sociales y plataformas hegemónicas. Estas empresas obligan a la aceptación de unos términos y condiciones legales no negociables que fuerzan a las personas creadoras de contenido intelectual a otorgar a estas plataformas la cesión de sus derechos en una forma amplísima, perdiendo de esta manera el control sobre lo que pueda ocurrir con su material creativo en estas redes y sus empresas filiales.

Como ejemplo, en primavera de 2020, desde Catalunya se lanzó «Caixa de Ressonància[1]»: «una plataforma ética de intercambio de actividades, contenidos y experiencias musicales: canciones, conciertos, clases, conversaciones, encuentros, talleres, charlas, materiales exclusivos… La red acoge y da la bienvenida a todo tipo de músicas y de artistas cuya actividad tenga relación con la música. El objetivo de la CDR es difundir su trabajo y conectarlo con el público a través de internet, impulsando una herramienta colectiva que facilite relaciones digitales solidarias entre las comunidades que hacen posible que la música siga existiendo. La CDR se plantea como una alternativa a los servicios tradicionales de *streaming*: sin ánimo de lucro, recomendando utilizar vías digitales de código libre, fomentando las buenas prácticas digitales para la música en internet y apostando por una relación directa y horizontal entre artistas y fans».

---

1 https://www.caixaderessonancia.org/#/home accedido el 22-11-20.

Los espacios y lugares donde ocurren las prácticas más experimentales que son capaces de provocar efectos transformadores, se encuentran en los márgenes, en la sombra.

Las instituciones deben propiciar el uso de espacios, tiempos y recursos, así como permitir la investigación y experimentación artística y cultural en contextos no institucionalizados, donde tengan cabida metodologías no convencionales para potenciar la circulación de saberes entre distintas disciplinas. Crear depósitos de experiencia comunes a través de prácticas en lugares y tiempos en los que se fomente la capacidad de autotransformación a través de la autorreflexión.

## MODIFICACIÓN DE LA INFRAESTRUCTURA LEGAL DEL ARTE Y LA CULTURA. «ESTATUTO DEL ARTISTA Y DEL TRABAJADOR DE LA CULTURA».

Las administraciones deben poner en marcha cuanto antes las recomendaciones recogidas en el «Informe de la Subcomisión para la elaboración de un Estatuto del Artista»[2], aprobado por unanimidad en el Congreso en septiembre de 2018.

Son multitud las asociaciones, proyectos y personas individuales que trabajan en pos de la visibilización de la precariedad en el sector profesional cultural, con el objetivo de concienciar, tanto al colectivo artístico como a profesionales de la gestión cultural y al público en general, de la necesidad de la implantación de buenas prácticas en la contratación cultural, al margen de la imperante necesidad de una actualización de la normativa. Estas son necesidades que traspasan los límites geográficos, pero que se han advertido de forma reiterada también desde la oficina de mediación K bulegoa de Gipuzkoa.

Se debe analizar con urgencia si alguna de estas recomendaciones es implementable ya desde nuestro territorio y, en caso de que así sea, la administración competente debe hacerlo con celeridad, contando con las aportaciones de entidades y asociaciones del sector que vienen trabajando desde hace tiempo en este sentido.

Desde Gipuzkoa, Musikari[3] (Asociación de músicos/as de Euskal Herria) trabaja por la defensa y la promoción de los intereses de los músicos y músicas, y el fomento de las relaciones con instituciones y demás agentes del sector. Actualmente forma parte de la Unión de Músicos Profesionales[4] (UPM), cuyos principales objetivos son «ejercer como interlocutores ante el gobierno central y gobiernos autonómicos y municipales, así como ante entes privados» y «conseguir un nuevo marco legislativo que refleje la realidad de nuestra profesión mediante el desarrollo del Estatuto del Artista».
Otros puntos de vista se concentran en proyectos como Prekariart[5], que desde el entorno académico (UPV-EHU) y como proyecto de investigación, «analiza la forma de entender la precariedad en la práctica artística, tanto en su acepción simbólica, como material, profundizando en sus formas de gestión. Es decir, cómo se vive la precariedad en la práctica artística y cómo se habilitan recursos, resistencias y formas de vida en torno a la precariedad o desde la precariedad».

Ainara LeGardon, noviembre de 2020.

---

2 http://www.congreso.es/backoffice_doc/prensa/notas_prensa/61825_1536230939806.pdf accedido el 22-11-20.
3 https://musikari.com/es/ accedido el 22-11-20.
4 http://www.uniondemusicos.es/ accedido el 22-11-20.
5 https://prekariart.org/ accedido el 22-11-20.

Idatzi nahi dudalako naiz irakasle.

Literaturan doktore, azken urteotan genero-identitatea, diskurtso sozio-politikoak eta literatura ardatzen gainean oinarritu dut nire ikerketa lana. «Idazleen gorputzak. Egiletasuna ezbaian literaturaren joko-zelaian» (2019) du izenburu argitaratu dudan azken lanak, eta bertan, idazleen gorputzen, bertatik sortutako testuen eta irakurleek testuok jasotzeko moduen artean sortutako harreman triangeluarra gertuagotik behatu nahi izan nuen.

Narratiban, lau liburu argitaratu ditut: «Eta handik gutxira gaur» (2004), «Haragia» (2007), «Katu jendea» (2010) eta «Bihotz handiegia», (2017).

(Euskaraz, tilderik gabe).

R o d r i g u e z

## E i d e r

**(Errenteria-Orereta, 1977)**

Soy profesora porque quiero escribir.

Doctora en Literatura, en los últimos años he centrado mi investigación en la identidad de género, los discursos socio-políticos y la literatura. «Los cuerpos de las escritoras. La autoría en disputa en el campo literario» («Idazleen gorputzak. Egiletasuna ezbaian literaturaren joko-zelaian», 2019) es el título de mi último trabajo, donde he querido observar más de cerca la relación triangular que se crea entre los cuerpos de quienes escriben, los textos resultantes y los cuerpos de quienes leen estos textos .

En narrativa he publicado cuatro libros: «Y poco después ahora» («Eta handik gutxira gaur», 2004), «Carne» («Haragia», 2007), «Un montón de gatos» («Katu jendea», 2010) y «Un corazón demasiado grande» («Bihotz handiegia», 2017).

# LETANIA BAT

Jauna, erruki zakizkigu

Kristo, erruki zakizkigu

Jauna, erruki zakizkigu

Barka iezaguzu, Jauna.

Adi iezaguzu, Jauna.

Erruki gutaz, Jauna.

Zure babesera gatoz, Jaungoikoaren Ama Santua.

Entzun gure eskariak estutasun eta larrialdietan eta libra gaitzazu arrisku guztietatik, arren:

Errosarioko aleak higatu zaizkigu, hatz mamiak odoldu, sortzaileen eta beren gorputzen, sortzaileen eta beren izpirituen, sortzaileen eta beren lan-lekuen, sortzaileen eta beren plazen alde otoitz egiten. Haien gorputz mugatuak akituta daude, aterberik gabe, biluzik negu gorriaren ertzean. Zu ogia eta ardoa zaren bezala dira haiek kantu eta dantza, margo eta liburu, film eta bertso, pitxar eta argazki, erruki zakizkie, Jauna, erruki, azkenetan diren haien gorputzez, ez dute merezi gaizkile gisa hartuak izatea. Itzul iezaiezu, arren, beren buruarekiko fede galdua. Itzul iezaiezu sortzaileen aita eta amei konfidantza beren seme-alabekiko ofizioa. Sinets ezazu beren obran.

Kristo, entzun gaitzazu

Kristo, adi gaitzazu

Gizon-emakumeen eroslea, erruki gutaz.

Hutsa haragi bihurtu zaigu. Laineza, alferkeria, lotsagabekeria eta arinkeria leporatu izan zaie, bai, baina handiagoa dute bakardadea urguilua baino, handiagoa sakrifizioa sakrilegioa baino, handiagoa sentiberatasuna itxurakeria baino, handiagoa asmamena suntsipena baino. Hutsa haragi bihurtu zaigu eta sortzaileak ari dira sikiera oihartzun bat sortzen gure gogo hustuetan, apokalipsiaren

bezperan mundua salbatu nahi duten zaldi bihurtuta. Hutsa haragi bihurtu zaigu, baina urrutian entzun dezaket haien trosta zitara, irrintzi eta turuten artean, utz iezaiezu hurbiltzen, luza iezaiezu eskua.

Egiaz sinesten dut hor zaudela,

ogi zerutik etorria,

zeu zara gure poz guztia.

Artista ikerlari bat da, osagile bat da, beste inor esatera ausartuko ez litzatekeenak esateko ardura duen bufoia, beste inork egingo ez dituen galderak egiteko araztasuna duen inozoa, munduaren joskurak ikus ditzakeen zoroa. Bazterreko gizon-emakumeek beti aurkitu dute abaro zure gerizpean, salba itzazu, arren. Emaiezu porrot egiteko askatasuna, porrota ez dadila porrot izan eta arrakasta ez dadila arrakasta izan.

Ama, otoitz gure alde

Birjinen Birjina Santua, otoitz gure alde

Ama txit garbia, otoitz gure alde

Bizitza ez delako existentzia, zuk erakutsi diguzu zure arrastoan ibiltzen eguneroko gauza txikietan, eta hala, zurekin, Jaun txit gorena, egiten dut topo landare baten hostoei hautsa kentzean, txantxangorri bati begietara begiratzean, tabernariarekin berriketan, irratian kantu bat entzutean edota nobela bat irakurtzean. Hor kanpoan, geroz eta maizago ari dira bizitza eta existentzia nahasten, Jauna, zeharka gaitzazu zure graziaz alea eta lastoa bereiz dezagun.

Goizeko izarra, otoitz gure alde

Gaixoen osasuna, otoitz gure alde.

Agintekeria da bizitza zer den eta zer ez den arautzea. Agintea

larderiaz erabiltzea da kultura kapritxotzat hartzea. Kulturak bizitzen laguntzen du, jauna, bizitza bizigarriagoa egiten, eguzkiak, ogi egin berriak eta besarkada batek nola. Horregatik, jauna, busti itzazu zure buru-argitasun eta sentiberatasunez agintariak eta barka itzazu haien bekatuak.

Ama kutsugabea, otoitz gure alde

Ama sortzez garbia, otoitz gure alde

Birjina indartsua, otoitz gure alde

Aurrera doan herria baino, esertzen den herria izan behar genuke, jauna, barka nire harrokeria. Hitz egiten duen, begiratzen duen, hausnartzen duen, jostatzen den, sentitzen duen, zer eta nola izan nahi duen eztabaidatzen duen herria.

Barka iezaguzu, jauna.

Erruki gutaz, jauna.

Arteak eta kulturak, geure etxe eta pantaila errukarrietan sentitzen eta pentsatzen ditugunak taldean sentitu eta pentsatzeko bidea ematen du. Arteak eta kulturak, geure bizimodu eta lantoki miserableetan sentituko eta pentsatuko ez ditugunak sentiarazteko eta pentsarazteko dohaia du, jauna, eztabaidatzeko, haserretzeko, adosteko, maitatzeko toki segurua da, sinets iezadazu. Artea ezagutza da. Hori gabe nodo kateatzen hutsa ginateke; kulturarik gabeko herririk ez dago, lagun iezaguzu bidean elkar topo egiten, lagun iezaguzu hiz egiten, haserretzen, borrokatzen, barkatzen.

Gurtu zagun jauna, apal ahuspezturik.

Urrezko etxea, otoitz gure alde

Goizeko izarra, otoitz gure alde

Barka ezazu, jauna, Makina Handiaren eta bere sortzaile eta zerbitzarien zekenkeria

eta itsukeria. Salba itzazu, arren, diruaren jabeen arima
ustelkarak,

libra itzazu bekatutik anai-arrebongandik bereiztu eta
algoritmoaren bide okerretik eraman nahi gaituztenen gorputz
gogortuak,

emaiezu jakintza eta buru-argitasuna aginte makila dutenei,

bidal iezazkiezu errainuok barru epelgarri,

ipin itzazu bizitzarantz begira,

alden itzazu, makina eta erremintatik,

urrutira itzazu, berandu baino lehen, porlan eta induskailuen tentalditik,

emaiezu borondatea xendra galgarrietatik joan ez daitezen;

kultura da Jainkoaren ondasuna;

busti itzazu zure goi-arnasez beronen aberastasuna neurtuko duen gailua asmatzeko
irudimena izan dezaten;

erakuts iezaiezu txertatzen Artea eta Kulturara bideraturiko gelaxka bat Excell aurrekontu orrietan.

Heteropatriarken Erregina, otoitz gure alde

Profeten Erregina, otoitz gure alde.

Etorkizunaz mintzo gara iragana balitz bezala.

Otoitz gure alde, desio dugunaren alde lan egiteko gogoa izan dezagun,

otoitz gure alde beldurrak irudimena kolapsatu ez dezan,

otoitz gure alde albisteek paralizatu ez gaitzaten,

otoitz gure alde Egiaren bila segitzeko jakin-mina agor ez dakigun,

otoitz gure alde munduaren gauera arte hurkoarekin hitz egiteko grinari euts diezaiogun,

otoitz gure alde itxaropena desager ez dakigun,

otoitz gure alde aldamenekoa zaintzeko duintasuna gal ez dezagun,

otoitz gure alde munduaren salbamenean sinesten jarrai dezagun,

otoitz gure alde ongia gaizkitik bereizteko ezagumena izan dezagun,

otoitz gure alde beti para gaitezen bizitzaren alde.

Emaguzu zeure barkamenaren grazia eta egiazko askatasuna.

Zure babesera gatoz, Jaungoikoaren Ama Santua. Entzun gure eskariak estutasun eta larrialdietan eta libra gaitzazu arrisku guztietatik, Birjina aintzatsu eta dohatsu horrek.

Otoitz egizu gure alde, Jaungoikoaren Ama Santu horrek.

Jesukristo gure Jaunaren aginduak irabaz ditzagun.

(*) El texto original ha sido creado en euskera. La traducción ha sido adaptada para favorecer un lenguaje inclusivo.

Señor, ten piedad
Cristo, ten piedad
Señor, ten piedad
Señor, perdónanos
Señor, escúchanos
Señor, apiádate
Santa Madre de Dios, ampáranos
Escucha nuestras plegarias en momentos de angustia y necesidad, y líbranos de todo mal.
Se nos han desgastado las cuentas del rosario, se nos han ensangrentado las yemas de los dedos rezando por la gente creadora y sus cuerpos, por la gente creadora y sus espíritus, por quienes crean y sus lugares de trabajo, por quienes crean y sus plazas. Sus cuerpos limitados están exhaustos, sin refugio, desnudos a las puertas del crudo invierno. Así como tú eres pan y vino, sus cuerpos son canto y danza, pintura y libro, película y verso, jarra y fotografía. Apiádate, Señor, apiádate de aquellos cuerpos que están llegando a su fin, no merecen ser considerados malhechores. Devuélveles, por favor, la fe que han perdido en sí mismos.
Devuelve la confianza a sus padres y madres para creer en el oficio y la obra de sus hijos e hijas.
Cristo, óyenos
Cristo, escúchanos
Comprador de hombres y mujeres, ten piedad.
La nada se nos ha hecho carne. Se les ha acusado de vanidad, holgazanería, descaro y frivolidad, sí, pero su soledad es mayor que el orgullo, su sacrificio es mayor que el sacrilegio, su sensibilidad mayor que el fingimiento, su imaginación mayor que la destrucción. El vacío se ha adueñado de nuestros cuerpos, pero los creadores al menos están haciendo eco en nuestras almas vacías, convertidos en caballos que quieren salvar el mundo en vísperas del apocalipsis.
La nada se está apropiando de todo, pero a lo lejos puedo oír un trote entre cítaras, relinchos y trompetas.
Creo en verdad que estás ahí.
Pan caído del cielo
tú eres toda nuestra alegría.
El artista es un investigador, un médico, un bufón encargado de decir lo que nadie más se atrevería a decir, una ingenua con la inocencia para hacer preguntas que nadie más va a hacer, una loca capaz de ver las costuras del mundo. Los hombres y mujeres marginales siempre han encontrado refugio bajo tu protección, sálvalos, por favor. Dales libertad para fracasar, que el fracaso no sea fracaso y que el éxito no sea éxito.

aléjalos, antes de que sea tarde, de la tentación del cemento y las excavadoras;
dales la fuerza suficiente para que no vayan por senderos de perdición;
la cultura es el bien de Dios;
empápalos con tu aliento para que tengan la imaginación de inventar el dispositivo que mida la riqueza de ese bien;
enséñales a insertar una celda destinada al Arte y la Cultura en las hojas Excell de presupuestos.
Reina de los heteropatriarcas, ruega por nosotras,
Reina de los profetas, ruega por nosotras
Hablamos del futuro como si fuera pasado.
Ruega por nosotras, para que tengamos fuerzas para trabajar por lo que deseamos,
ruega por nosotras para que el miedo no colapse la imaginación,
ruega por nosotras para que las noticias no nos paralicen,
ruega por nosotras para que no se nos agote la curiosidad de seguir buscando la Verdad,
ruega por nosotras para que mantengamos el afán de hablar con el prójimo hasta el fin de los días,
ruega por nosotras para que no perdamos la esperanza,
ruega por nosotras para que no perdamos la dignidad de cuidar a quien tengamos al lado,
ruega por nosotras para que sigamos creyendo en la salvación del mundo,
ruega por nosotras para protegernos de la ceguera que impide diferenciar el bien del mal,
ruega por nosotras para que nos pongamos siempre a favor de la vida.
Concédenos la gracia de tu perdón y la libertad verdadera.
Santa Madre de Dios, ampáranos. Virgen gloriosa y bienaventurada, escucha nuestras plegarias en momentos de angustia y necesidad, y líbranos de todo mal.
Ruega por nosotras Santa Madre de Dios
Ruega para que seamos dignas de alcanzar las promesas de nuestro Señor Jesucristo.

Madre, ruega por nosotras
Santa Virgen de las Vírgenes, ruega por nosotras
Madre purísima, ruega por nosotras
Porque la vida no es existencia, tú nos has enseñado a seguir tu senda en las pequeñas cosas cotidianas, y así, me encuentro contigo, excelentísimo Señor, al quitar el polvo a las hojas de una planta, al mirar a los ojos a un petirrojo, al charlar con el tabernero, al escuchar una canción en la radio o al leer una novela. Ahí fuera, cada vez con más frecuencia se mezclan la vida y la existencia, Señor, concédenos tu gracia para que sepamos distinguir el grano de la paja.
Estrella de la mañana, ruega por nosotras.
Salud de los enfermos, ruega por nosotras.
Es un abuso de autoridad regular lo que es y no es vida. Tratar a la cultura como capricho es también un abuso de autoridad. La cultura ayuda a vivir, señor, a hacer la vida más estimulante, como el sol, el pan recién hecho o un abrazo. Por eso, señor, concédeles tu lucidez mental y tu sensibilidad a las autoridades y perdona sus pecados.
Madre inmaculada, ruega por nosotras
Madre purísima, ruega por nosotras
Virgen poderosa, ruega por nosotras
Más que un país en marcha, deberíamos ser un país que se sienta, señor, perdona mi arrogancia. Un país que habla, observa, reflexiona, juega, siente y debate qué y cómo quiere ser.
Perdónanos, Señor.
Ten misericordia de nosotras, Señor.
El arte y la cultura hacen que podamos sentir y pensar en grupo lo que sentimos y pensamos en nuestras casas y lastimosas pantallas. El arte y la cultura tienen el don de hacernos sentir y pensar lo que no sentiremos ni pensaremos en nuestras miserables vidas y trabajos, señor; es un lugar seguro para discutir, para enfadarse, para llegar a acuerdos, para amar. El arte es conocimiento. Sin eso seríamos un mero encadenamiento de nodos, no hay pueblo sin cultura, ayúdanos a encontrarnos en el camino, ayúdanos a hablar, a enfadarnos, a luchar, a perdonarnos.
Adoremos al señor, postradas humildemente.
Casa de oro, ruega por nosotras
Estrella de la mañana, ruega por nosotras.
Perdona, Señor, la avaricia y ceguera de la Gran Máquina y de sus creadores y servidores.
Salva, por favor, las almas corruptas de los dueños del dinero;
libra del pecado los cuerpos endurecidos de los que quieren separarnos de nuestros hermanos y hermanas para llevarnos por el camino equivocado del algoritmo;
concédeles sabiduría y lucidez a quienes tienen la vara de mando;
envíales estos rayos para templar su interior;
ponlos de cara a la vida;
apártalos de la máquina y la herramienta;

**Zuloa izenburuko saiakera argitaratu nuen 2018an.**

**Twitterreko bioan Ludwig Wittgensteinen aipu bat daukat: Nire mintzairaren mugak ditut munduaren muga. Beti aldatzekotan nago, baina ez dut ezer hoberik topatu oraindik. Arte Ederretan lizentziatu nintzen halakoren batean, fakultatean urte mordoxka egin eta gero. Sautrelan egin nuen lana. Reina Sofian masterra egin nuen. Handik Artelekura: proiektu eder bat geneukan, ezin izan zuena argia ikusi. Kalostrako koordinatzaile izan nintzen hasi eta buka, urtebete ere ez, Aldundiak ixtea erabaki zuen-eta. Azpeitian bizi naiz orain, eta bertako Dinamoa sormen gunean ari naiz lanean gustora.**

**Gentzarain**

Publiqué el ensayo Zuloa en 2018.

En la bio de Twitter tengo una cita de Ludwig Wittgenstein: «Los límites de mi lenguaje son los límites de mi mundo.» Siempre estoy para cambiarlo, pero todavía no he encontrado nada mejor. En una de esas, me licencié en Bellas Artes, después de muchos años en la facultad. Trabajé en Sautrela. Hice un máster en el Reina Sofía. De allí a Arteleku: teníamos un hermoso proyecto que no pudo ver la luz. Fui coordinador de Kalostra de principio a fin, ni un año, porque la Diputación decidió cerrarlo. Ahora vivo en Azpeitia y estoy trabajando a gusto en el centro de creación Dinamoa.

(Azkoitia, 1975)

x a b i e r

Hemendik ikusten dut mundua orain, ezinbestean, eta gustatzen zait munduari hemendik begiratzea. 2020ko martxoaren 13an ohar hau jarri genuen dinamoa.eus atarian:

Koronabirusaren hedapen azkarra ikusita, arduraz jokatu eta Dinamoa sormen guneko jardun guztia etetea erabaki dugu, eta erabat ixtea eraikina, osasun agintariek bestelakorik agindu arte.

Etxean sartuta egon beharko dugun tartea erabil dezagun pentsatzeko, irakurtzeko, entzuteko, lasaitzeko, jolasteko, maitatzeko, zaintzeko, sortzeko: mundu berri bat, ahal bada.

Ez dugu berehala ahaztuko aurtengo urtea, esaten diogu elkarri, belaunaldi bakoitzak bizi izan ditu markatuta uzteko moduko gertakariak, gerrak, goseteak, gaitzak, eta guri pandemia hau tokatu zaigu, aditzarekin zeruaren madarikazioa izan dela emanez aditzera, nahiz eta jakin badakigun gizakiak lurrari eragin dizkion kalteen ondorioa dela. Lurra ustiatzen ari gara, bizitzaren gauzarik ederrenak ere -maitasuna, lagunak, konplizeak- osoki ustiatzen dituen sistema baten mendean. Antropozenoa izena erabiltzen dute batzuek; beste batzuek, zorrotzago, erradikalago, nahiago izan dute zuzenean kapitalozenoa deitu.

Ez dugu berehala ahaztuko aurtengo urtea, esaten diogu elkarri, baina gezurra da. Gehien-gehiena ahaztua dugu jada. Nik bai behintzat. Printza lauso batzuk etortzen zaizkit, hutsaren hurrengoa bizitakoaren aldean, eta zergatik azaltzen kosta egiten zaidan arren modu intimoren batean durduzatu nauten albiste txikiak geratzen zaizkit garunaren zolan itsatsita, txikle zikin baten gisan.

Frantziako Armadak zientzia fikzioa idazten duten bost idazle kontratatu dituela adibidez, etorkizuneko mehatxuak imajina ditzaten, eta hartara aurre hartzeko gai izan dadin Armada, Estatua, Gobernua. Horixe etorri zitzaidan lehenbizi K bulegoaren enkargu hau jaso genuenean. Oso bestelakoa da guri eskatu diguten lana, hala ere: etorkizuneko mehatxuak baino gaurko gaitzak agerira ekartzea da eskatu zaiguna, eta okerrak zuzentzeko proposamenak egitea.

Ni beti izan naiz oso txarra gauza zehatzak proposatzen, zeharka ibiltzea gustatzen baitzait, eta kosta egiten baitzait sinistea kultur politiketan txertatzeko egindako proposamenek inongo eraginik izaten dutenik azken beltzean. Ze gainera ematen du era horretan, proposamen zehatzak eginda, neurri berri batzuk emanda, orain arteko kultur politiken egokitasuna berretsi besterik ez dela egiten, eta dauden horretan zilegi jotzen ditugula, neurri zuzentzaile batzuk gorabehera.

Eta hortxe dago koska. Benetan geratu eta pentsatzeko astia hartu beharko genuke kultura esaten diogun ente likatsu honetan zikinduta gabiltzanok. Beharbada zientzia fikzioa idatzi beharko genuke guk ere, edo politika fikzioa nahiago bada, eta etorkizuna imajinatzen saiatu, eta hor kulturak izan dezakeen eragina hasi aintzat hartzen.

Hau ez da zientzia fikzioa: pandemia azeleragailu perfektua bihurtu da kapitalismoarentzat. Lehendik zetorren joera baten azkartzea ekarri du: lana etxetik, erosi etxetik, etxean bizi, etxean hil, bakarrik, trabarik egin gabe. Pandemiak utzi dituen argazkietan mingarriena, eta aldi berean gure gizartearen autopotreta fidelena, egoitzetan abandonatuta hil diren zaharrena da. Eta hildakoei agurrik egin ezina. Merezi duen bezala bizi ezina, birik irauteko. Eta gure bizitzak gurpilak biraka jarrai dezan hondatzen diren hortzak besterik ez direla: lana etxetik, erosi etxetik, eta segi gurpil zoroan. Lehengoan esan zidan lagun batek: kalean ikusten diren irribarre bakarrak Amazonen paketeetakoak dira. Jende asko geratu da lanik gabe, eta geratuko. Langile asko eta askorentzat lan baldintzak are eskasagoak izango dira aurrerantzean.

Frantziako Armadaren albistea bezalaxe geratu zitzaidan azaroaren bukaeran irratiari entzun niona: Pandemia garaian, lau frantziarretatik batek serioski pentsatu du bere buruaz beste egiteko aukeran. Ez dakit zein izan zen suizidioaren aukera alivio bat zela esan zuena, arrazoi zuela uste nuen garai batean, aukera hori izateak arindu zezakeela beharbada baten baten mina, baina orain ez dut hala ikusten, min hori ez dago arintzerik, arrastaka daramazu zurekin bazter guztietara bizi ezinaren zama.

Bi albiste beraz, bi albiste ezdeus garai ilun baten laburtzeko: herritarren laurdenak bere buruaz beste egitea pentsatu duen herrialdean idazleak Armadarentzat lanean, etorkizuneko mehatxuak imajinatzen.

Fredric Jamesonek esana ondo ekarri zuen gero Mark Fisherrek bere Capitalist Realism liburuan: errazagoa da munduaren amaiera imajinatzea

kapitalismoaren amaiera baino. Iñigo Roquek azaroaren 3an idatzita utzi zuen Twitterren: Kontakizun, serie eta abar distopikoekin kokoteraino. Eta Idurre Eskisabelen erantzunak zer pentsatua eman zidan: Ez dakit gure arima neoliberalaren ezaugarri nabarmenena ez ote den utopiarekin (edo utopiaren usain txikiena duen ezerekin) hunkitu ezina.

Eta ni biekin nator bat.

Egoera honetan kulturari afalostean ikusteko telesailen plataformak ondo gizentzea baino zerbait gehiago eskatu behar diogu, edo zerbait gutxiago, nondik begiratzen den. Baina urgentea da hasteko gutxienez plataforma horiek herrialde bakoitzean zergak ganoraz ordaindu behar izatea. Ia etxe guztietako ia leiho guztietan ageri den Netflix plataformak, beste albiste ezdeus bat ekartzeagatik, 3.416 euro ordaindu zituen zergetan Espainian, 2018an. Ez dut uste hurrengo urteetan kopuru hori asko aldatuko zenik. Eta gu bazter guztietan Netflixeko telesailak hizpide hartuta, kontsumo produktibo etengabean. Eta neu orain hemen, injustizia fiskal bat aipatzeko bada ere plataforma baten izena idazten…

Egoera honetan kulturaren eginbeharra pentsatzea da funtsezkoena, eta aldi berean zailena. Gurpil zoroan biraka ari gara denok, eta ez dugu modurik ikusten geratzeko eta pentsatzeko. Inertziak garamatza. Erakunde publikoek aurrekontuak prestatu dehar dituzte datorren urterako, eta hor hartzen dira erabakirik inportanteenak. Ideia berriak sartzea erraza da, baina oso zaila zaharrak erauztea, esan zuen norbaitek, eta eman behar malefizio hori ezin dugula gainetik kendu. Saiatzen garela ideia berriak sartzen gure lanean, gure programetan, gure aurrekontuetan, baina ideia zaharrek gain hartzen dutela beti: kontzeptu maiztuek, jardun zaharminduek, bizio zatarrenek.

Eta hala ere eutsi egiten diogu fedeari, batzuetan majo kostata, eta zerbait egiten saiatzen gara, huskeria dela iruditu arren gehiengoari, Marguerite Yourcenar idazlearen aipua gogoan hartuta: artearen funtzioa inteligentziaren eta moralaren mugak milimetro bat harago eramatea da.

Eta milimetroz milimetro bidea egiten ari garela sentitzea gustatzen zaigula esango nuke, nahiz eta jakitun garen denbora ez dela ez lineala eta ez progresiboa, gehiago dela zirkularra, eta askotan kolpetik egiten dela atzera, egindako bidea desegiteko ez dela ezer behar izaten, bizi dugun garaian argi samar geratzen ari den bezala.

Errezeloa daukat pandemiak ekarriko dituen ondorioetan ez leunena ordenara itzultzea izango dela. Murrizketak etorriko dira, lehendik ere aurrekontu murritzak dauzkatenentzat. Eta mezua, ez diskurtsoan baina bai praktikan, beti-betikoa izango da: kultura ez da ezinbestekoa, kultura itxura da, apaingarria, garai zailak datozenean albo batera uzteko modukoa.

Eta justu alderantziz da.

Nire defentsa ez dator ez ikuspegi ekonomizista batetik -kulturak BPGren hainbeste mugitzen du, hainbeste jende bizi da kulturatik, etc.-, ez eta ikuspegi identitario batetik ere -kulturak egiten gaitu herri, kulturak eraikitzen du gure nortasuna, etc. Nire defentsa, zaharra naiz benetan, filosofikoa da. Kultura, hasteko eta behin, mundua ulertzen saiatzeko behar dugu, eta gero mundua kontatzeko. Esperientzia estetiko konpartituen bidez hartzen du zentzua gure bizitzak, munduan izateko modu bat topatzen baitugu. Azpeitian martxan jarri dugun Dinamoa definitzeko horixe jarri genuen: mundua ulertzeko eta mundua kontatzeko aukera da Dinamoa.

Beste kontu bat da, eta hau da behin eta berriz geure buruari galdetzen dioguna, kulturak behar al duen dinamorik. Eta gordinago esanda, behar al duen edonolako erakunderik. Eta gordinago esanda, erakundeek ez al duten beti dena fagozitatzen. Eta hori da gure erronka beti: nola egin kulturak hain berezkoa duen bizitasunari espazio eta giro egokia eskaintzeko, nola egin erakundea bera baino hemengo (eta edonongo!) mugimendua lehenetsi eta babestuko duen erakunde bat, nola egin besteren lana erraztu bai baina zurrupatu eta bereganatuko ez duena. Etorkizuneko mehatxuak ez, gaurko gaitzak dira horiek, urrutira joan gabe ere.

Besteren lana erraztea diogunean adierarik prosaikoena ere berekin darama: artistek lana bukatzen dutenean erratza pasatzea. Zikintzen uztea, batez ere gu zikintzen uztea. Erraza baita laguntzeko aitzakian, borondate onenarekin akaso, erakundeak bitartekaritza jarri eta horrek suebaki funtzioak betetzea praktikan, eta jendearentzat oztopo bat gehiago izatea bitartekaritza hori.

Erakunde batek gertukoa izan behar du, malgua,

jendearen beharrei erantzun azkarra emateko modukoa. Eta hori, gaur gaurkoz, erakunde txikiek askoz errazago daukate handiek baino. Hauek jaten duten aurrekontuaren laurdenaren laurdenera ere ez dira iristen gehienak, herritarrekin eskuz esku lanean dabiltzanak, eta lotsamangarria da erakunde handi horietako arduradunen baten ahotik euren zeregina herritarrak ahalduntzea dela entzutea.

Eta berriro dator galdera: nork behar du nor? Herritarrek erakundeak, ala erakundeek herritarrak? Eta zer behar du batak bestearengandik? Ze ezin du izan kultur politikaren ardatzetako bat dirulaguntzak ematea izatea, erakunde txikiak eta era guztietako artistak txostengintzara kondenatuz, eta euren jarduna dirulaguntzen menpeko bihurtuz. Telebistako lehiaketa kaxkar bat ematen du. Eta okerrena da sistema betikotu eta normalizatu egin dela, eta imajina ezina ematen duela beste batek.

Eta horixe da orain egin beharrekoa: beste sistema bat imajinatu kulturarentzat, eta behin hasita, munduarentzat.

Ahora veo el mundo desde aquí, inevitablemente, y me gusta mirar el mundo desde aquí. El 13 de marzo de 2020 pusimos la siguiente nota en el portal dinamoa.eus:

Ante la rápida expansión del Coronavirus, hemos decidido actuar con responsabilidad y suspender toda la actividad del espacio creativo Dinamoa, cerrando totalmente el edificio hasta que las autoridades sanitarias ordenen otra cosa.

Utilicemos el tiempo que tendremos que permanecer en casa para pensar, leer, escuchar, relajarnos, jugar, amar, cuidar, crear: un mundo nuevo, si es posible.

No será fácil olvidarnos de este año, nos decimos, cada generación ha vivido episodios que les han dejado marcados, guerras, hambrunas, enfermedades, y a nosotros nos ha tocado esta pandemia, dando a entender con el verbo que ha sido una maldición del cielo, aunque sabemos que es consecuencia de los daños que el ser humano ha infligido a la tierra. Estamos explotando la tierra bajo un sistema que explota plenamente incluso las cosas más bellas de la vida -el amor, la amistad, los cómplices-. Algunos utilizan el nombre de Antropoceno; otros, más estrictos, más radicales, han preferido llamarlo directamente Capitaloceno.

No será fácil olvidarnos de este año, nos decimos, pero es mentira. Ya hemos olvidado la mayor parte. Al menos yo sí. Me vienen unas vagas imágenes, nada que ver con lo realmente vivido, y aunque me cuesta explicar el por qué, en el fondo del cerebro se me quedan pegadas, como un sucio chicle, las pequeñas noticias que me han desconcertado de alguna manera íntima.

Por ejemplo, que el ejército francés ha contratado a cinco escritores que escriben ciencia ficción para que imaginen futuras amenazas y así el Ejército, el Estado, el Gobierno sea capaz de anticiparse. Eso fue lo primero que me vino a la cabeza cuando recibimos este encargo de K bulegoa. Sin embargo, el trabajo que nos han pedido es muy distinto: lo que se nos ha pedido es sacar a la luz los males de hoy y no tanto las amenazas futuras, y hacer propuestas para corregir los errores.

Yo siempre he sido muy malo proponiendo cosas concretas, porque me gusta andar con rodeos, y porque me cuesta creer que las propuestas realizadas para incorporarlas a las políticas culturales tengan, finalmente, algún efecto. Porque además parece que de esta manera, con propuestas concretas, con nuevas medidas, no se hace más que ratificar la idoneidad de las políticas culturales hasta ahora existentes, y las consideramos legítimas tal como están, a pesar de algunas medidas correctoras.

Y he aquí el quid de la cuestión. Quienes andamos manchados en este ente viscoso que llamamos cultura deberíamos parar de verdad y tomarnos el tiempo para pensar. Quizá, nosotros también deberíamos escribir ciencia ficción, o si se prefiere política ficción, e intentar imaginar el futuro y empezar a considerar la influencia que puede tener la cultura.

Esto no es ciencia ficción: la pandemia se ha convertido en el acelerador perfecto para el capitalismo. Ha supuesto la aceleración de una tendencia que venía de antes: trabajar desde casa, comprar desde casa, vivir en casa, morir en casa, solos, sin molestar. La más dolorosa de las fotografías que ha dejado la pandemia, y al mismo tiempo el autorretrato más fiel de nuestra sociedad, es la de los ancianos que han muerto abandonados en las residencias. Y la imposibilidad de despedir a los fallecidos. La imposibilidad de vivir como se merece, para sobrevivir. Y que nuestras vidas no son más que los engranajes que hacen que la rueda siga girando y que poco a poco se van estropeando: trabajar desde casa, comprar desde casa y mantener el círculo vicioso. El otro día me dijo un amigo: las únicas sonrisas que se ven en la calle son las de los paquetes de Amazon. Mucha gente se ha quedado y se quedará sin trabajo. Para muchos trabajadores, las condiciones laborales serán aún más precarias.

Al igual que la noticia del Ejército Francés, se me quedó la que escuché a finales de noviembre en la radio: durante la pandemia, uno de cada cuatro franceses ha pensado seriamente en la posibilidad de suicidarse. No sé quién fue el que dijo que la posibilidad del suicidio era un alivio; en un tiempo creía que tenía razón, que tener esa posibilidad tal vez podría aliviar el dolor de alguien, pero ahora no lo veo así, ese dolor no se puede aliviar, arrastras contigo a todas partes la carga de la imposibilidad de vivir.

Dos noticias, por tanto, dos noticias insignificantes para resumir una época oscura: en un país en el que una cuarta parte de la población ha pensado en suicidarse, los escritores trabajando para el Ejército, imaginando futuras amenazas.

Las manifestaciones de Fredric Jameson fueron bien recogidas por Mark Fisher en su libro Capitalist Realism: es más fácil imaginar el fin del mundo que el fin del capitalismo. Iñigo Roque lo dejó escrito el 3 de noviembre en Twitter: «Estoy harto de historias, series… distópicas». Y la respuesta de Idurre Eskisabel me dio qué pensar: «No sé si lo más característico de nuestro alma neoliberal no es la imposibilidad de emocionarnos con la utopía (o con nada que huela a utopía)».

Yo coincido con los dos.

En esta situación tenemos que pedir a la cultura algo más, o algo menos, según por dónde se mire, que engordar bien las plataformas de teleseries para ver después de cenar. Pero es urgente empezar por que al menos estas plataformas tengan que tributar en cada país. Por traer otra noticia insignificante, la plataforma Netflix, que aparece en casi todas las ventanas de casi todos los hogares, pagó 3.416 euros en impuestos en España en 2018. No creo que en los siguientes años esta cifra variara mucho. Y nosotros en todos los rincones hablando de las series de Netflix, en un consumo productivo constante. Yo mismo ahora, aunque sea para mencionar una injusticia fiscal, escribiendo el nombre de una plataforma…

En esta situación, lo esencial, y al mismo tiempo lo más difícil, es pensar el deber de la cultura. Estamos todos girando en un círculo vicioso y no vemos la manera de detenernos y pensar. La inercia nos lleva. Las instituciones públicas deben elaborar sus presupuestos para el próximo años[5] y es ahí donde se toman las decisiones más importantes. Es fácil introducir nuevas ideas, pero muy difícil arrancar las viejas, dijo alguien, y parece que no podemos quitarnos el maleficio de encima. Intentamos introducir nuevas ideas en nuestro trabajo, en nuestros programas, en nuestros presupuestos, pero siempre sobresalen las ideas antiguas: los conceptos manidos, los lugares comunes, las tendencias rancias, los vicios desagradables.

Y sin embargo mantenemos la fe, aunque nos cueste lo suyo a veces, e intentamos hacer algo, aunque parezca una nadería a la mayoría, teniendo en cuenta la cita de la escritora Marguerite Yourcenar: «la función del arte es llevar los límites de la inteligencia y de la moral un milímetro más allá».

Y diría que nos gusta sentir que estamos recorriendo el camino milímetro a milímetro, aunque somos conscientes de que el tiempo no es lineal ni progresivo, es más bien circular, y que muchas veces se retrocede de golpe, que no hace falta nada para deshacer el camino recorrido, tal como está quedando bastante claro en la época que vivimos.

Tengo la sospecha de que entre las consecuencias que traerá la pandemia de las menos gratas será volver al orden. Llegarán recortes para los que ya tienen presupuestos reducidos. Y el mensaje, no en el discurso pero sí en la práctica, será el de siempre: la cultura no es imprescindible, la cultura es accesoria, ornamento, algo que puede obviarse cuando vienen tiempos difíciles.

Y es justo al revés.

Mi defensa no viene ni desde una perspectiva economicista -la cultura mueve el tanto por ciento del PIB, vive tanta gente de la cultura, etc.-. Ni desde una perspectiva identitaria -la cultura nos hace pueblo, la cultura construye nuestra identidad, etc. Mi defensa es filosófica, soy realmente viejo. La cultura, de entrada, la necesitamos para intentar entender el mundo y, luego, para contarlo. Nuestra vida adquiere sentido a través de experiencias estéticas compartidas, ya que encontramos una forma de ser en el mundo. Es lo mismo que hemos utilizado para definir el dinamo que hemos puesto en marcha en Azpeitia: Dinamoa es una oportunidad de entender el mundo y de contarlo.

Otra cosa es, y nos lo preguntamos una y otra vez, si la cultura necesita dinamo. Y más crudamente, si necesita cualquier institución. Y más crudamente, si las instituciones no lo fagocitan todo siempre. Y ese es siempre nuestro reto: qué hacer para ofrecer un espacio y un ambiente adecuado a la vitalidad tan propia de la cultura, cómo hacer una organización que priorice y apoye el movimiento de aquí (y de cualquier parte), cómo hacer para facilitar el trabajo de los demás pero sin absorberlo y sin apropiarse de él. Sin ir más lejos, no son las

amenazas del futuro, son los males de hoy.

Cuando decimos facilitar el trabajo ajeno, también nos referimos a la acepción más prosaica: pasar la escoba cuando los artistas terminan el trabajo. Dejar ensuciar, sobre todo dejar que nos ensucien. Porque es fácil que con la excusa de ayudar, quizá con la mejor voluntad, la institución ponga una mediación y que ésta desempeñe en la práctica funciones de cortafuegos, y que esa mediación sea un obstáculo más para la gente.

Una institución debe ser cercana, flexible, capaz de dar una respuesta rápida a las necesidades de la gente. Y eso, hoy por hoy, lo tienen mucho más fácil las instituciones pequeñas que las grandes. La mayoría no llega ni a la cuarta parte del presupuesto que consumen esas grandes instituciones, trabajan mano a mano con los ciudadanos y resulta vergonzoso escuchar por boca de algún responsable de estas grandes instituciones que su tarea es empoderar a la ciudadanía.

Y de nuevo vuelve la pregunta: ¿quién necesita a quién? ¿La ciudadanía a las instituciones, o las instituciones a la ciudadanía? ¿Y qué necesita la una de la otra? Porque no puede ser que uno de los ejes de la política cultural sea la concesión de subvenciones, condenando a las instituciones pequeñas y a todo tipo de artistas a la presentación de informes, y haciendo que su actuación dependa de subvenciones. Parece un pésimo concurso televisivo. Y lo peor es que el sistema se ha perpetuado y normalizado, y otro parece inimaginable.

Y eso es lo que hay que hacer ahora: imaginar otro sistema para la cultura y, ya puestos, para el mundo.

(Baiona, 1972)

Arantxa

Mendiharat

**Zientzia politikoetan lizentziatua da Bordeleko Unibertsitatean, eta Edinburgoko Heriot-Watt Unibertsitateko kudeaketa kulturaleko MSC baten titularra. Nire ibilbidearen zati handi bat sorkuntza artistikoaren eta bizitzako beste esparru batzuen artean zubiak sortzeko saiakeran kokatzen da, artistek mundua pentsatzeko garaian ekarpen handia egin dezaketela ulertuta. Idoia Zabaletarekin eta Ixiar Rozasekin batera, *Zirriborroak eta gero* proiektua diseinatu eta abiarazi dugu 2018az geroztik, dauden alternatibetatik abiatuta utopia berriak proposatzen dituen proiektua. Halaber, deliberazio demokraziaren ideia sustatzen eta praktikan jartzen dihardut, zozketa bidez hautatutako pertsonei sistema politikoan leku nabarmen bat ematea inplikatzen duena. Iparraldekoa jaiotzez, orain Bilbon bizi naiz.**

Licenciada en ciencias políticas en la Universidad de Burdeos, y titular de un MSc en Gestión cultural de la Universidad Heriot-Watt de Edimburgo. Gran parte de mi trayectoria se sitúa en un intento de crear puentes entre la creación artística y otros ámbitos de la vida, entendiendo que los/as artistas tienen mucho que aportar a la hora de pensar el mundo. Junto a Idoia Zabaleta e Ixiar Rozas hemos co-diseñado y puesto en marcha desde 2018 *Borradores del futuro*, un proyecto que propone nuevas utopías partiendo de alternativas existentes. Me dedico también a la promoción y a la puesta en práctica de la idea de democracia deliberativa que implica dar un lugar destacado en el sistema político a personas elegidas por sorteo. Nacida en Iparralde, vivo en Bilbao.

Nire kontaketa hasiko dut idazketagai dugun Topaketan egon zen oihu batetik eta isiltasun batetik.

Oihua Jorge Gallardok egin zuen, Cadizeko alkate-auzo txiki batean kokatzen den eta Bee Time proiektua ekoizten duen BARBA-T- herritarren erakusketa-laborategiko kideak, lanean ari diren lurralde ultradegradatuaren inguruan: «Lur emankorrik eta urik gabe geratzen ari gara, eta, bitartean, artearen eta zientziaren arteko harremanari buruzko eztabaida antzuetan gabiltza. Kultura birsortzaile batera jo behar da, maitasuna sortu behar da lurraldean zehar, funtsezko aldaketak egin behar dira (…) makro-landetxeak desagerrarazi behar dira. Zientzialariekin parte hartu behar dugu baliabideen kudeaketan, ezagutzaren sorkuntzan, baina, batez ere, lurraldearen kogestioan».

Isiltasuna Margherita Isolak proposatu zigun, Bartzelonako Guerrilla Drugstore proiektukoak, «osasunaren eta beraz bizitzaren gaineko autonomia sortzea» helburu duen sendabelarren kale-farmazia bat. Onlinen ordu asko eman ondoren, batzuetan norberaren bizitza zaintzearekin bateragarriak ez diren orduetan, proposatu zuen begiak ixtea Afrikako iparraldeko erritu-kantu bat entzunez. Gelditzea proposatu zuen. Eta horrela egon ginen denbora luzean. [1]

Keinu horiek kokatzen dira Kultura eta Herritartasuna Topaketaren bilakaera batean (aurtengoa seigarren edizioa izan da). Topaketa hori pasa da herritarrekin era oso inbrikatuan funtzionatzen duten kultura proiektuei buruzko proposamenak eta pentsamenduak biltzen dituen estatu mailako tamaina handiko lehen jardunaldia izatetik, perspektiba hartzera eta ulertzera kultura ekoizpena esparru zabalago batetik soilik ulertu daitekeela. Aurkezpenak, berak, azpimarratzen duen bezala, Topaketak «abiapuntu du bertsio hedatuko kulturaren kontzientzia eta ulermena, arteen eremua gainditzen duena errealitatearen

---

1 Goizeroko sarrerako bideo piezek ere modu zoragarri batean lortu zuten erritmo jaitsiera hori eta beste modu batera sentitze hori, eta bereziki, Audio-Laben soinu-pieza honek: *Babel II. Biblioteca Portátil del ruido.*

unibertsoa azaltzen eta errealitate horretan eragiten duten beste diziplina batzuen horizontean gainezka egiteko, nahasteko eta ugaltzeko». Horrela proposatzen du «gure burua birkokatzea eta birpentsatzea gure espazioan eta gure denboran, etorkizun desiragarri baterantz proiektatzeko, benetan etorkizun posible ugari baitira».



Topaketa horretatik ikaskuntza zehatz asko atera daitezke. Hasieran aipatzen nituen bi keinu txiki horiekin zerikusia duten ikasketetan oinarrituko naiz batez ere: egoera larria da, ez dezagun begirada desbideratu; eta eten bat egin dezakegu.

Topaketan behin eta berriz agertu diren errealitateen bi muturrak dira: gaixorik gaude, gizarte hau gaixorik dago, badakigu, esaten dugu, eta, hala ere, ezer gertatuko ez balitz bezala jokatzen jarraitzen dugu. Gutxi batzuk egiten dugu oihu benetan, eta gutxi batzuk gelditzen gara benetan. Santi Erasok Topaketan esan zuen bezala, «Krisi honek inoiz egiten ez dugun trantsizio ekologiko honetan kokatzen gaitu berriz ere».

Gipuzkoako Foru Aldundia bezalako erakundeak eta Gipuzkoako kultura esparruak (beste edozein izan zitekeena, nire ustez) zer egin dezakete?

## 1. IDEIA
## Definitzea zer den funtsezkoa

Marina Garcések eman zuen ideia hori, Topaketa hasi bezain laster. Ideia hori gureganatu eta Gipuzkoako Foru Aldundia bezalako erakunde bati eskatu nahi diogu (bere osotasunean, departamentu guztiak barne hartuta, hau da, Diputatu Nagusiaren Arloa, Gobernantza, Ingurumena eta Obra Hidraulikoak, Ekonomia Sustapena, Turismoa eta Landa Ingurunea, Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa, Ogasuna eta Finantzak, Bide Azpiegiturak, Gizarte Politikak, Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirola), definitu dezala, Marina Garcések esan zuen bezala, «zer den funtsezkoa». «Dena gelditzen denean, zerk jarraitu behar du?». Egin al dezakegu erakundeak eta proiektuak birpentsatzeko ariketa kolektiboa, benetako jasangarritasun terminoetan? Eta orain arte egiten ari garenaren zati handi bat bertan behera utzi behar badugu, «nola jarraituko dugu gure bizitzari eusten?» (Garcés)

Funtsezkoaren definizioak, ziurrenik, ekoizpen ereduak zalantzan jartzera eramango gintuzke; María Ptqk-ek esan zuen bezala, «habitatak, ekosistemak suntsitzea da COVIDen sorburua. Lehen aldia da akats ekologiko baten ondorioa guztiok sentitzen dugula. Hala ere, ez dira zalantzan jartzen gure ekoizpen ereduak, pandemia honen jatorri direnak». Yayo Herrerok azpimarratu zuenez «ezin diogu krisi ekonomikoari begiratu krisi ekologikoarekin lotu gabe». Unai Pascualek «ingurumen justiziaz eta justizia sozialaz» hitz egin zuen. Horretarako, «ez dago tresna bat, baizik eta tresnen konposizio harmoniko bat; (...) legitimoak diren irtenbideak behar ditugu».

María Ptqken arabera, beharrezkoa da, halaber, «teknozientzia bere kutxa beltzetik ateratzea, gizarte zientzietatik, kulturatik eta herritarren ekintzatik begiratzea, eta zientziak demokraziara eramatea (Bruno Latour)». Kontua da «alderdi ekologikoa erabiltzea garaikidetasuna irakurtzeko».

Gipuzkoako Foru Aldundiak definitzen eta kudeatzen dituen politika guztietarako funtsezkoa zer den definitzeko ariketa hori modu askotan egin liteke. Gogoeta hori kulturaren ikuspegitik egiteak zentzu handia izango luke. Adibidez, Topaketan aurkeztu zen tresna bat erabil liteke: Transbiotikoa, Pez Estudio y Colaborabora enpresak proposatua. Jolas taula bat sortu dute, diagrama bat, hausnartzeko, gizarte transbiotiko bat sortze aldera, hau da, bizitza erdian jartzen duen gizarte bat sortzeko: Nola egiten da hori? Nola gauzatzen da? Horrela, laborategi bat proposatzen dute bizitza komuna nola eraiki ikusteko (trans + biotikoa, hau da, biotopo bat partekatzen duten espezieen multzoa).

Mónica Bello Genevako «Arts and CERN» programaren arduradunarekin pentsa dezakegu horrelako ariketak egiteko garaian artistek aniztasuna, beldur eza eta errazak ez diren galderak ekartzen dituztela. Juan Luis Morazak «harridura irudikatzeaz» hitz egin zuen.

Laburbilduz, Remedios Zafrak esan zuen bezala, «Ekologia tentsio korapilo gisa erabiltzea, eta kultura esperimentazio eremu gisa; polarizazio garaian, garrantzitsua da hitz egin ahal izatea eta elkar topatzea».

## 2. IDEIA
## Gobernantza ereduak birdefinitzea

Yayo Herrerok esan zuen bezala, «I+G+B gehiago behar dugu arlo sozialean eta politikoan; modu kooperatiboak eta birbanatzaileak ezarri behar ditugu, pertsona guztientzako premien gutxieneko zoru gisa (energia, ura, etxebizitza, etab.)». Unai Pascualek honako hau gehitu zuen: «Interes orokorrari buruzko hausnarketa behar dugu; zoru komun batetik abiatu eta eztabaidatu».

Marcos Garcíak honako hau proposatu zuen «ahulgune indibidualetatik abiatu beharrean kolektibo potentzialetatik abiatzen diren politika publikoak irudikatzea, eta elkarren beharra dugulako ideiatik abiatzen diren politika publiko kulturalak eta politika publikoak eraikitzea».

Gobernantza eredu berriek ere, Amador Fernández-Savaterrek esan zuen bezala, zerikusia izan lezakete «erakundeak kontrola

lagatzeko logikekin; kontrola lagatzen denean, gauza interesgarriak agertzen dira». Madrilgo Tabakaleraren eta Campo de la Cebadaren adibideak eman zituen.

Gipuzkoako proiektu bat izan liteke printzipio horiek aplikatzeko tokietako bat. Topaketan aurkeztu zen Uliako-Baratzak, luxuzko etxebizitzak eraikitzekoak ziren espazio bat da, orain parke publiko handi bihurtu dena eta 2015az geroztik modu komunitarioan kudeatzen dena, Donostiako Udalak egindako erabilera lagatze batean (oso prekarioa) oinarrituta. Leire Rodríguezek adierazi zuenez, Udalak eta Aranzadik zalantzan jartzen dute proiektua, parkea «museifikatzeko» asmoa baitute. Ikas al liteke Uliako Lore-Baratzak proiektutik, gure garaiko beharrei erantzungo dieten gobernantza ereduak pentsatzeko? Bizitzen utzi eta mota horretako espazio gehiago sustatu?

## 3. IDEIA

**Permakultura aldarrikatzea** kulturaren eremutik **(eta beste edozein esparrutatik)** egiteko modu gisa, eta munduaren erdigunea garela pentsatzeari uztea.

Topaketan, erakunde-diseinuei buruzko kapituluan, honela definitzen dira kultura kudeaketan eta jardunbideetan egiteko moduen adibide onak: «prozesuak zaintzen dituzte, edonork parte hartzeko lekuak errazten dituzte, ez dute zentralizatzen, autoantolaketa eta sorkuntza kolektiboa errazten dute, lehendik dagoena laguntzen dute, ez dute sektore homogeneo baten logiken pean jarduten, afektibitatea txertatzen dute eta ez dute ekitaldia pribilegiatzen».

Fernando Broncanok, era berean, «sareen ordez crocheta jartzeaz» hitz egin zuen. Artisau praktiken moduetara eta garaietara itzultzen ari gara, jasangarriagoak direlako. Ezin dugu eskatu jende guztia ultra konektatuta egoteko, denbora guztian korrika batean ekoizten jarduteko.

Erreprodukzio abiadura murriztearekin ere badu zerikusia. Juan Luis Morazak oso azkar hitz egin zuenean, Formulak taldeko Ainara Legardonek adierazi zuen Youtuben erreprodukzioaren abiadura jaitsi (edo bizkortu) zitekeela. Nola egin gutxiago, hobeto eta jasangarriago? Aktibatu al daitezke denbora luzeagotik pentsatutako laguntza publikoak, emaitza material gutxiagorekin eta emaitza gehiagorekin harremanetan jartzeari eta funtsezko ondasunen ekoizpenari dagokienez?

Azkuna Zentroko Fernando Pérez izan zen permakultura hitza aipatu zuena. Gemma Garbók bizitza eman zion, Tarragonako Landa Bizitzaren Museoaren errealitateak eta asmoak deskribatuz. Mugak ikusiezin bihurtzeko orduan «ekoliteracy» delakoak aipatu zituen. Oso gako mikroak aldarrikatu zituen, hala nola ekologia eskola jantokietan sartzea edo alfabetatze ekologikoa sustatzea. Era berean, adierazi zuen «etorkizuna irudikatzea» bere misioaren parte dela, eta «iragana etorkizunerako palanka gisa erabiltzen ari dela, landatartasun berria berrasmatzeko». Daniel Innerarity eta gure inguruneen konplexutasunari buruz egin zuen azterketa aipatu zituen, «oso desberdinak diren errealitateen lotura horretan trebatzeko» beharra adierazteko. «Plan estrategiko baten beharra» ere adierazteko, «norantz goazen argi erakusten duen ildoa» gero «giza talde bat izateko, komunitateekin lotura afektiboa sortzeko». Okupazioa, lana eta praktika guneak sortzeko beharra aipatu zuen, bizitza kulturala sortzeari uko egin gabe.

Remedios Zafrak ikaratzen duenaren antzekotasuna eta utopiaren aniztasuna gogorarazi zituen. Kultura eta Herritartasuna Topaketak gogora ekarri digu eta berretsi egin digu jarraitu behar dugula, inoiz baino gehiago, utopia horiek pentsatzen kulturatik.

**1. IDEIA**
IDEA 1.



**[Irudiaren argazki-oina: Formulak txatean iritziak eta ideiak trukatzen genituen bitartean, Eider Rodríguezek aldi berean telebistan ematen ari ziren berrien irudi bat partekatu zuen: itotzen ari ziren migratzaileen irudia.]**

[Pie de foto de la imagen: mientras intercambiábamos impresiones e ideas en el chat de Formulak, Eider Rodríguez compartió una imagen de las noticias que se estaban dando al mismo tiempo en la televisión: las de personas migrantes ahogándose.]

**2. IDEIA**
IDEA 2.




**3. IDEIA**
IDEA 3.



Empezaré mi relato por un grito y por un silencio que se dieron durante el Encuentro sobre el cual estamos escribiendo.

El grito lo dio Jorge Gallardo, de BARBA-T, expo-laboratorio ciudadano, situado en una pedanía muy pequeña de Cádiz, que produce el proyecto Bee time, sobre el territorio ultra degradado en el que operan: «nos estamos quedando sin suelo fértil y sin agua, y mientras tanto estamos haciendo *pajas mentales* sobre la relación entre arte y ciencia. Hay que ir a una cultura regenerativa, fabricar amor por el territorio, producir cambios muy radicales (...) acabar con las macro-granjas. Con los científicos tenemos que participar en la gestión de los recursos, en la creación de conocimiento, pero sobre todo en la cogestión del territorio».

El silencio nos lo propuso Margherita Isola, del proyecto Guerrilla Drugstore en Barcelona, una farmacia callejera de plantas medicinales, que pretende «generar autonomía sobre la salud y por lo tanto autonomía sobre la vida». Después de horas de estar online en horarios a veces pocos compatibles con cuidar la vida de una misma, propuso cerrar los ojos escuchando un canto ritual del norte de África. Propuso parar. Y así estuvimos un buen rato[1].

Estos gestos se inscriben en una evolución del Encuentro Cultura y Ciudadanía que celebraba este año su sexta edición. El Encuentro ha pasado de ser el primer evento de envergadura estatal en recoger propuestas y pensamientos sobre proyectos culturales que funcionan de manera muy imbricada con la ciudadanía, a coger perspectiva y entender que la producción cultural sólo se puede entender desde un marco mucho más amplio. Como lo subraya su propia presentación, el Encuentro «parte de la conciencia y el entendimiento de una cultura en versión expandida, que sobrepasa el espacio de las artes para desbordarse, mezclarse y multiplicarse en el horizonte de otras disciplinas que explican e inciden en el universo de lo real». Propone así «reubicarnos y repensarnos en nuestro espacio y nuestro tiempo para proyectarnos hacia un futuro deseable, que en realidad son múltiples futuros posibles».

Muchos aprendizajes concretos se pueden extraer de este Encuentro, me centraré sobre todo en lecciones que tienen que ver con esos dos pequeños gestos que evocaba al principio: la situación es grave, no desviemos la mirada; y parar es posible.

Representan los dos polos de realidades que han aparecido una y otra vez durante el Encuentro: estamos enfermos, esta sociedad está enferma, lo sabemos, lo decimos, y sin embargo seguimos actuando como si no pasara nada. Poca gente gritamos de verdad y poca gente paramos de verdad. Como comenta Santi Eraso durante el Encuentro, «esta crisis nos sitúa de nuevo en esta transición ecológica que nunca acabamos de hacer».

Desde una institución como la Diputación Foral de Gipuzkoa y, desde el ámbito cultural guipuzcoano (que podría ser, a mi entender, cualquier otro), ¿qué se puede hacer?

---

1 Esta bajada de ritmo y de sentirse totalmente de otra manera tambień lo proporcionaron de manera maravillosa las piezas de vídeo introductorias cada mañana y, especialmente la pieza sonora de Audio-Lab titulada *Babel II. Biblioteca portátil del ruido.*

## IDEA 1. Definir qué es lo esencial

Esta idea la lanzó Marina Garcés nada más empezar el Encuentro. La queremos coger al vuelo y pedir a una institución como la Diputación Foral de Gipuzkoa (en su totalidad, englobando todos los departamentos, es decir, el Área del Diputado General, Gobernanza, Medio Ambiente y Obras Hidráulicas, Promoción Económica, Turismo y Medio Rural, Movilidad y Ordenación del Territorio, Hacienda y Finanzas, Infraestructuras Viarias, Políticas Sociales, Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes), definir, cómo dijo Marina Garcés, «qué es lo esencial». «Cuando todo se detiene, ¿qué tiene que seguir?». ¿Podemos hacer un ejercicio colectivo de repensar las instituciones y los proyectos, en términos de verdadera sostenibilidad? Y si resulta que tenemos que dejar de hacer mucho de lo que estamos haciendo ahora, «¿cómo continuar sosteniendo nuestras vidas?» (Garcès).

La definición de lo esencial nos llevaría probablemente a poner en cuestión los modelos productivos; como dijo María Ptqk, «la causa del COVID es la destrucción de hábitats, de ecosistemas. Es la primera vez que experimentamos en común la consecuencia de un fallo ecológico. Sin embargo, no se ponen en cuestión nuestros modelos productivos que son el origen de esta pandemia». Yayo Herrero subrayó que «no podemos mirar la crisis económica sin conectarla con la crisis ecológica». Unai Pascual habló de «justicia ambiental y de justicia social». Para ello, «no hay un instrumento sino una composición armónica de instrumentos; (...) necesitamos soluciones que sean legítimas».

Según María Ptqk, es también necesario «sacar la tecnociencia de su caja negra, mirarla desde la ciencias sociales, la cultura y la acción ciudadana, y llevar las ciencias a la democracia (Bruno Latour)». Se trata de «usar lo ecológico para leer la contemporaneidad».

Este ejercicio de definir qué es lo esencial para el conjunto de políticas que se definen y se gestionan desde la Diputación Foral de Gipuzkoa, se podría probablemente hacer de muchas maneras. Hacer esta reflexión desde la cultura tendría mucho sentido. Se podría por ejemplo usar una herramienta que se presentó durante el Encuentro, Transbiótica, propuesta por Pez Estudio y Colaborabora. Han generado un tablero de juego, un diagrama, con el que reflexionar para generar una sociedad transbiótica, es decir una sociedad que ponga la vida en el centro: ¿cómo se hace? ¿cómo se lleva a la práctica? Proponen así un laboratorio para ver cómo construir la vida en común (trans + biótico, es decir conjunto de especies que comparten un biotopo).

Podemos pensar con Mónica Bello, responsable del programa «Arts and CERN» en Ginebra, que a la hora de realizar este tipo de ejercicios, los artistas traen diversidad, falta de temor, preguntas que no son fáciles». Juan Luis Moraza habló de «imaginación del extrañamiento».

Resumiendo, como dijo Remedios Zafra, usar la «ecología como nudo de tensión, y la cultura como campo de experimentación; en tiempos de polarización, es importante poder hablar y encontrarnos».

## IDEA 2. Redefinir los modelos de gobernanza

Cómo dijo Yayo Herrero, «necesitamos más i+d+i en lo social y en lo político; establecer formas cooperativas, redistributivas, como un suelo mínimo de necesidades para todas las personas (energía, agua, vivienda, etc.)». Unai Pascual añadió: «necesitamos deliberación sobre el interés general; partir de un suelo común y deliberar».

Marcos García propuso «imaginar políticas públicas que no partan tanto de debilidades individuales sino de potenciales colectivos, y construir políticas públicas culturales y políticas públicas que partan de la idea que nos necesitamos los unos a los otros».

Nuevos modelos de gobernanza podrían también que ver, como lo dijo Amador Fernández-Savater, con «lógicas de cesión de control por parte de la institución; cuando se cede el control, cosas interesantes aparecen». Dio el ejemplo de Tabacalera en Madrid y del campo de la Cebada.

Un proyecto guipuzcoano podría ser uno de los lugares dónde aplicar esos principios. Uliako Lore-Baratzak, que se presentó durante el Encuentro, es un espacio donde se iban a construir viviendas de lujo y que se ha convertido en un gran parque público, gestionado de manera comunitaria, en base a una cesión de uso (muy precaria) del Ayuntamiento de Donostia, desde

2015. Según contó Leire Rodríguez, el proyecto está hoy puesto en cuestión por el Ayuntamiento y por Aranzadi que tienen intención de «museificar» el parque. ¿Se podría aprender de Uliako Lore-Baratzak para pensar modelos de gobernanza que respondan a las necesidades de nuestro tiempo? ¿Dejarlo vivir y promover más espacios de este tipo?

## IDEA 3.

**Reivindicar la permacultura como modo de hacer desde lo cultural (y desde cualquier otro ámbito) y dejar de pensar que somos el centro del mundo**

En el capítulo del Encuentro sobre los diseños institucionales, así se definen los buenos ejemplos de modos de hacer en la gestión y las prácticas culturales: «cuidan los procesos, propician lugares para la participación de cualquiera, no centralizan, facilitan la autoorganización y la creación colectiva, acompañan lo que ya existe, no operan bajo las lógicas de un sector homogéneo, incorporan lo afectivo y no privilegian el evento».

Fernando Broncano habló a su vez de «sustituir las redes por el crochet». Estamos volviendo a formas y tiempos de prácticas artesanales, porque son más sostenibles. No podemos pedir que todo el mundo esté ultra conectado produciendo todo el tiempo a todo correr.

También tiene que ver con bajar la velocidad de reproducción. Cuando Juan Luis Moraza se puso a hablar a toda velocidad, Ainara Legardon del grupo de Formulak compartió que en youtube se podía bajar (o acelerar) la velocidad de reproducción. ¿Cómo hacer menos, mejor y más sostenible? ¿Se pueden activar ayudas públicas que se piensen desde tiempos más largos, con menos resultados materiales y más resultados en términos de puesta en relación y en producción de bienes esenciales?

Fernando Pérez de Azkuna Zentroa fue quien mencionó la palabra permacultura. Gemma Garbó le dió vida describiendo las realidades e intenciones del Museo de la Vida Rural en Tarragona. Hizo referencia a las «ecoliteracy» a la hora de desdibujar las fronteras. Reivindicó claves muy micro, como introducir la ecología en comedores escolares o promover la alfabetización ecológica. Consideró también que «imaginar futuros» forma parte de su misión y que «el pasado está sirviendo de palanca para el futuro, para reinventar la nueva ruralidad». Hizo referencia a Daniel Innerarity y su análisis de la complejidad de nuestros entornos, para aludir a la necesidad de «formarnos en esta conexión de realidades muy diferentes». También a la necesidad de un «plan estratégico, una línea muy clara de hacia dónde vamos» para luego «contar con el equipo humano, para generar una vinculación afectiva con las comunidades». Mencionó la necesidad de generar ocupación, trabajo, espacios de prácticas, sin renunciar a generar vida cultural.

Remedios Zafra recordó la similitud de lo que asusta y la diversidad de la utopía. El Encuentro Cultura y Ciudadanía nos ha recordado y nos ha reafirmado en el hecho que tenemos que seguir pensando, más que nunca, esas utopías desde la cultura.

**KREDITOAK** | CRÉDITOS

**Parte hartzaileak** | Participantes

**USUE ARRIETA**

**AINARA LEGARDON**

**EIDER RODRIGUEZ**

**XABIER GANTZARAIN**

**ARANTXA MENDIHARAT**

**Koordinazioa** | Coordinación

**IXIAR GARCIA | K BULEGOA**

**Diseinua eta maketazioa** | Diseño y maquetación

**RODRIGUEZ & NDUNGMANDUM**

**Itzulpenak** | Traducciones

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ITZULPEN ATALA**

**Lege Gordailua** | Depósito legal

**D-60-2021**

Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentua

ETORKIZUNA ORAIN

**Kultura eta sorkuntzako bost profesionalen hausnarketak eta etorkizuna eraikitzeko proposamenak jasotzen dituen gida hau 2020ko azaroan Donostian ospatutako VI. Cultura y Ciudadanía Topaketatik eratorria izan da.**

Guía que, a partir del VI Encuentro Cultura y Ciudadanía que se celebró en Donostia en noviembre de 2020, recoge las reflexiones y las propuestas de acciones futuras de cinco profesionales de la cultura y la creación.

K BULEGOA
Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentua
ETORKIZUNA ORAIN